



/ 5-8

MIREN ARREGI OLIVENZA

Iturmendin berokuntza sistema bateratuaren oinarri diren hodiak aurten jarriko dituzte / 11

Irurtzungo eskola handitzeko lanak despedituta, kurso berrian mustuko dituzte / 9



Arbizuk duatloiaren 22. edizioa hartuko du bihar, Kale Nagusiko lanak markatuta / 18

Eneko Lazkoz Nafarroako Bertsolari txapeldunordea da, eta Julio Soto txapelduna / 21



/ 2-3



Manifestazioko deitzaileek hainbat sakandarren babesaz aurkeztu zuten manifestazioa.

Tren sozialaren aldeko aldarria

Sakana Trenaren Alde, AHTrik ez! plataformak “Tren soziala bai, AHT gelditu. Respetad la voluntad popular” leloa duen manifestazioa deitu du larunbaterako, 18:00etan, Altsasuko suhiltzaileen parketik abiatuko dena

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
Sustapen Ministerioak Sakana zeharkatuko zuen Abiadura Handiko Trenaren (AHT) ibilbide berriaren proposamenak jendarean jarri zituen joan den urteko ilbeltzaren 10ean. AHTko Nafarroako korridorea eta Euskal Y-koa lotzeko bi proposamen jarri zituen mahai gainean. Haietako batek Iruñea eta Gasteiz Sakanan barna lotzen ditu (V alternatiba, 850 milioi euroko aurrekontua, Gasteizko sarrera kontuan hartu gabe). Besteak Iruñea eta Ezkio Altsasu arteko

trazadura baten bidez lotuko luke (H alternatiba, 2.400 milioiko aurrekontua). Horiei Nafarroako Gobernuak alegazioen garaian egindako proposamena gehitu behar zaio: Iruñea eta Ezkio Bakaikura arteko ibilbide batekin lotzea.

Sakana Trenaren Alde, AHTrik ez! plataformak bihar hiru aldarrikapen eginen ditu: “AHTren lanak eta tramitazioak gelditzea, egungo trenbidea hobetzea eta bestelako aukerak aztertzea, beharrezkoa den analisia eginenez”. Azterketa horren emaitzak biz-

tanleendako eskuragarri jarri ondoren “galdeketa egitea eta ateratzen den erabakia errespetatzea” eskatu dute.

Plataformako Martin Zelaiak gogorarazi digunez, sakandarrek 2.733 alegazio aurkeztu zituzten ministerioaren proiektuei. Ministerioa alegazioak aztertzen ari da. “Erabaki bat hartu behar du: alternatiba bat edo bestea egin, edo ezer ez egin. Bere alternatiba hemendik gutxira aurkez dezake ministerioak”. Horregatik deitu dute mobilizazioa: “une garrantzitsua iruditzen

zaigu manifestazioa deitzeko eta Sakana osoak esateko ez duela AHTrik nahi, baizik eta daukagun trena hobetu, modernizatu eta martxan jartzea”.

Eraginak

Plataformako kideek astelehenean egindako agerraldian esan zutenez, “AHT proiektu horiek ez dute inolako onurarik gure ibarrarendako, ez ekonomiko, ez sozial, ezta ingurumen arlokoak ere”. Sustapen Ministerioaren ingurumen ikerketa aipatuta adierazi zutenez, “ibarra lurralde desegituratu bihurtuko da, ezponda handien, tunelen eta biaduktu izugarrien ondorioz (500 metrokoak Izurdiagan eta Olatzagutian). Lanetan mugituko liratekeen lurren ondorioz, 150 futbol zelai baino gehiagoko tamaina duten zaborteziak sortuko dira”.

Berriaren magalean “hormigoizkoak izanen diren zoru zabal eta luzeak eginen lirateke, trenak elkar aurreratzeko edota gelditzeko”. Plataformatik gogorarazi zutenez, proposamenen arabera 40 eta 150 metro arteko zabalera hartuko duen trenbide bikoitza eraikiko litzateke. Lankuntza eta Etxarri Aranatzen bi argindar azpiestazio eginen liratekeela, linea berriak eta bestelako azpiegitura lagungarriak gaineratu beharko lirateke.

AHT egitasmoa gauzatuz gero bestelako eraginak litzuzkeela ere gaineratu dute plataformatik: Aralarren eta Urbasa-Andiaren artean “hesi efektu larria faunarendako, baita nekazarien eta abeltzainen ustiapen larretan, turismoan edo industrian”. Plataformako kideek ziurtatu zutenez, “AHT proiektuak gizartearen mugikortasun beharren zati txiki bat besterik ez du betetzen: hiri handien arteko bidaia luzeak. Ez dio mesederik egiten herri, hiri eta industrialdeen loturei, garraio sistema horrekin loturarik ez dutelako eta, kasu batzuetan, dituztenak galdu egiten dituzte, Altsasun gertatuko litzatekeen moduan”. AHTk merkantziak garraiatzeko ez duela

balio gaztigatu dute. “Merkantziak eta aldiriko trenek betiko trenbidetik jarraituko dute. Hala esan dute gobernuetatik. Orduan zertarako behar dugu, adibidez, Iruñea eta Zaragoza lotuko dituen AHT bat?” galdetu du Zelaiak, “egungo trenak dagoeneko lotzen ditu”.

Alternatiba

Manifestazioaren leloan ager den tren sozialaren alternatiba defendatu dute plataformako kideek: “gaur egun dugun tren azpiegiturak berritzea eta modernizatzea. Herriak, hiriak eta industriak batuko dituen. Bai pertsonak, bai merkantziak garraiatuko dituen. Edozein pertsonarendako eskuragarria dena eta baztertuta gelditzen diren eskualderik gabe”. Euren proposamena da gaur egungo trenbide plataforman trenbide bikoitza jartzea. Horretarako espazioa dagoela eta lur horiek Renferen eskuetan daudela gaztigatu zuten. Gainera, trenbideetan hirugarren erraila jarrita nazioarteko zabalera trenak ibiltzeko aukera luketela gaineratu zuten. Euren proposatutako alternatiba “kostu txikiagoa” lukeela jakinarazi dute eta gaineratu dutenez, “baliabideak proiektu jasangarrietara, inor baztertzen ez dutenak eta ingurumena errespetatzen duten proiektuetara bideratu behar ditugu”.

Zelaiak azaldu digunez, aukera horrekin “nahikoa genuke Sakanarendako eta Nafarroarendako”. Eta euren proposamena zehaztu du: “bi trenbide horietan orain baino tren gehiago jarri behar dira eta dauden geltoki eta geraleku guztiak zabaldu behar dira. Herri eta eskualde guztietan tren bidezko mugikortasuna behar dugu. Merkantziak garraiatzeko egun daukagun

"LANEN TRAMITAZIOA GELDITU, AUKERA GUZTIAK AZTERTU, ANALISIAK PUBLIKATU ETA GALDEKETA EGIN"




EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



trena potentziatu behar da”. Zelaiek salatu du eurek proposatzen duten aukera ez dutela “batere ikertu. Dauxkagun alternatiba guztiak aztertu behar dira. Alternatiba guztiak jendearen aurrean jarri eta jendeak erabaki dezala”. Azken hori galdeketa bidez egitea eta erabakia errespetatzea eskatzen du plataformak. “Hori guretako kristoren erroka da. Erabaki horretan edozer gauza atera daiteke: AHT edo guk pentsatzen dugun tren soziala. Herrian erabaki ahalmena dagoela uste dugu, eta berak izan behar duela azken erabakia”. Egitasmoak hartuko lituzkeen probintzietan egin beharko litzateke galdeketa hori.

Europa

Ministerioaren kontra dagoen arabarren eta sakandarren ordezkariak Bruselan Europako Batasunean izan zen otsailaren 6an eta 7an. Europako Garraio Batzordearen bilera batean parte hartu zuten eta bilera hartako hiru ideia azpimarratu dituzte. Aurrena, “gure lurraldean proiektatutako abiadura handiko trenak bidaiariak baino ez dituzte eramanen, merkantziak betiko trenetan eramango baitira, inolako hobekuntzarik egin gabe”. Hurrengo ideia: “Europako Batasunak orain arte AHT eraikitzeke ematen zituen diru-laguntzak moztuko ditu, gastu publikoan ekartzen ari den gehiegikeriagatik”. Eta atzeneko ideia: “onar-tu ziguten AHT eraikitzearen

erabakian kontuan hartutako errentagarritasun txostenak ezin direla publiko egin. Beraz, horrek konfirmatzen digu txosten horietako datuak goraka manipulatutako daudela, gure lurraldeetan AHTk ez baititu bidaiari nahikorik eramango bere errentagarritasuna bermatzeko”.

Plataformakoek gogorarazi dutenez, “Europar Komisioa bera ere kritikak egiten hasi zaizkio abiadura handiko lineei, dituzten kostu altuengatik, aurreikusitakoak baino abiadura baxuagoengatik, konexio gabeko tramuen-gatik, eta abar”. Europako Kontuen Auzitegiak egindako txostenak hori guztia berresten duela gaineratu dute: “salatzen du abiadura handiko linea hauek inolako bideragarritasun ekonomiko eta sozialaren azterketak egin gabe eraikitzen, baita haien gehiegizko gastu ekonomikoa ere”. Manifestazioaren deitzaileek gogorarazi dute aipatu auzitegiak “irmoki gomendatzen” duela “tren sarea jada existitzen diren azpiegiturak aprobetxatuz eta linea tradizionalak berrituz egituratu dadin, eta ez linea berriak eraikitzen”.

Manifestazioaren deitzaileek azaldu dutenez, “hori guztia kontuan izanik, ulertzekoa da Europar herrialde batzuk AHT kilometro bat bera ez duten herrialdeak (Suedia, Erresuma Batua, Finlandia, Norvegia, Portugal edo Irlanda), eta dituzte herrialdeetan (Frantzia edo Alemania) aspaldi erabaki zuten gehiagorik

ezeiraikitzea”. Gaztigituzutenez, Espainia da “herritar bakoitzeko abiadura handiko kilometro gehien dituen estatua eta proportzioan gutxien erabiltzen dena. Abiadura handian desplazamenduen %8 baino egiten ez diren arren, askoz inbertsio gehiago egiten dira betiko trenarekin konparatuz, azken hau egoera penagarrian dagoelako kasu askotan”.

Mobilizazioaren ibilbideaz

Manifestazioek Altsasun egiten duten ohiko ibilbidea egingen du biharkoan. Nahiz eta hasiera desberdina izan, Gartzia Ximenez kaletik gora egin eta Garbitoki eraikinaren parean ezkerrean egingen du Bakea eta Frontoi kaletatik aurrera jo eta Zumalakarregi plazatik pasatzeko. Handik Nafarroa kaletik pasaz San Juan kalerantz joko dute, Foru plazan despeditzeko.

Ibilbidean zehar fanfarrea, mitologia-pertsonaiak, zantzarrik, erraldoi eta buruhandiak, batukada eta beste izanen dira. “Gure poza adieraziko dugu. Poza gero eta ahots gehiago entzuten baititugu AHT gelditzeko eskatzen dutenak: gizarte, politika eta sindikatu kolektiboak, lurraldearen gizarte eta ekonomia errealtatea aztertzen duten erakunde ofizial askoren babesa dutenak, esaterako, Nafarroako Kontuen Ganbera, Europako Kontu Auzitegia, FEDEA fundazioa, ikertzaile eta unibertsitateetako adituak...”



Udal ordezkariak Etxarri Aranatzko tren geltokian herenegun.

14 udalek tren sozialaren alde eta AHTren kontra egin dute

Larunbateko Altsasuko manifestazioan parte hartzera deitu dituzte herritarrik

SAKANA

Trenaren Alde, AHTrik ez! Plataformak aurkeztutako idatzia bere egin dute ibarreko udal guztiek, Altsasu ez beste. Mozio horretan 14 udalek Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari eskatzen diete “Abiadura Handiko Trenaren (AHT) egungo lanak eta izapideak gelditzea, eta ohiko trenaren hobekuntza suposatzen duen alternatiba aztertzea, orain arte egin ez den azterketa”. Horrekin batera, Sakanako 14 udal horiek eskatu diete “azterketa horien emaitzak herritarren

eskura jartzea, haien gaineko kontsulta egitea, eta emaitza errespetatzea”. Horretaz aparte, plataformak larunbaterako Altsasun antolatu duen manifestazioarekin bat egin dute udal horiek eta sakandarrak mobilizazioan parte hartzera deitu diete.

Atxikimenduak

ELA, LAB, CGT, CGTko Adifeko saila, STEILAS, ESK, EHNE, Sakanako Mugimendu Feminista, Belardi, Sakanako 14 udal, I-E, Sustrai Erakuntza fundazioa, AHT Gelditu!

GUTUNA

Sakanak merezi duelako, AHTrik ez**UNAI RAZKIN IRIARTE**

SORTU SAKANAKA

Sakanan garraibide garrantzitsua izan da trena eta garrantzitsua izaten jarraitu behar du. Horrela bada, herritarren mesedetara egongo den Tren Publiko eta Soziala behar dugu.

AHT Nafarroako eskualdeak eta herriak isolatuko dituen eta elite ekonomikoei onura egiten dien tren eredu bat baino ez da, baliabide naturalak, ingurumenekoak eta nekazaritzakoak kaltetzen dituen.

Gure herrien ondotik pasako litzatekeen azpiegitura erraldoi eta txikitzaile berri bat inposatu nahi digute, trenbide konbentzionalaren ibilbidearekin paralelo zati gehienean. Gainera tren konbentzionalaren zerbitzuak okerrera egitea dakar. Herritarrok erabiltzen dugun trena hiltzen uzten ari dira. Sakanan 9 geltoki izan ditugu, gaur egun ordea 3 bakarrik daude funtzionamenduan. Tren konbentzionalen murrizketak gero eta handiagoak dira, AHTaren finantzazioak geroz eta diru gehiago behar duelako; amaigabea den diru publiko xahuketaren aurrean gaude, eta proiektuaren kudeaketari ustelkeriaren kiratsa dario.

Izena aldatuagatik ere (Tren de Altas Prestaciones diote orain), proiektu berdinak dira. Proiektu horietan ez zen merkantziarik aipatzen; horiek gerora sartu dituzte, kritikak isilarazteko asmoz. Sinestarazi nahi digutenaren kontra, errealitateak erakusten digu abiadura handian ez dagoela merkantzien garraiorik. Espainiar estatua munduan abiadura handiko km gehien duen estatua da, Txinaren atzetik, baina soilik merkantzien %4 inguru garraiatzen da trenez.

Herritarren beharren eta osasunaren kontra inposatu nahi izan ziguten erraustegia gelditu genuen, baita Goi Tentsioko Linea ere (badirudi saiakera berria egingo dutela). Herritarren mobilizazio eta borrokarekin lortu genuen.

Orain herritarren beharrak aseko dituen tren sozialaren alde eta AHTren kontra mobilizatuko gara. Borrokak fruituak ematen dituelako. Ama lurra defendatu, kapitalismoa gelditu.

Sakanak merezi duelako, larunbatean Altsasura!

Josu Zabala; aitortzarik gabeko krimena**AMAIA ERDOZIA ETA JUAN KRUZ ALDASORO**

ETXARRI ARANAZKO SORTUREN IZENEAN

Martxoaren 23an 22 urte bete dira Josu Bilbon bahitu zutenetik. Hiru egun

beranduago bere gorpua Punta Mendatan agertu zen, bihotzaren parean tiro bat zuela. Aitortzarik gabeko Estatu Krimena segitzen du izaten. Berriki Egiari Zor Fundazioak Foro Sozialean aurkeztu duen txostenaren arabera, 361 dira azken hamarkada hauetan bi Estatu biolentziak eragin dituen heriotzak, eta horietatik bakarrik 82k jaso dute aitortza ofiziala (%22,5). Beste 115 herritar hil dira gatazkarekin harreman dutako gertakarietan (enfrentamenduak, istripuak...).

Estatuek eragindako 361 hilketak horietatik 219 Segurtasun Indarrek egindakoak dira, 78 guda zikinak (GAL, BVE...), 63 salbuespen politiken ondorio izan dira (espetxe politikaren ondorio nagusiki) eta 4 faxisstek egindako erasoen ondorio. Hamarkada guzti hauetan Espainiak oztopatu egin du aitortza eta egia argitaratu ateratzea; ezezkoa eman dio kalte-ordainak parekatzeari aurrez terrorismoaren biktime gisara onartuta dauden Estatuaren biktimei; Nafarroan onartu zen 16/2015 Legea helegite baten bidez indargabetu zuen; 9/1968 Sekretu Ofizialen Lege Frankista bere horretan mantentzen du. Gainera, eskubideak urratu dituzten funtzionario publikoei kondekorazioak eta indultuak eman dizkie.

Bizikidetzarako ezinbesteko osagaia dira egia, aitortza eta ez errepikatzeko bermea. Josu Zabalaen Egia aldarrikatuko dugu Etxarri Aranatzan larunbatean, eguerdiko 13:00etan hilerrian egingen dugun ekitaldian.

Estabilitate politikoa nagusi izan den legegintzaldia Altsasun**JAVIER OLLO MARTINEZ**

ALTSASUKO ALKATEA

Maiatzaren 26an udal hauteskundeak ospatuko dira. Modu honetan Altsasuko Udalean interesgarria eta positiboa izan den legegintzaldia bukatutzat emango dugu.

Oraindik indarrean dagoen legegintzaldian Altsasuko Udalean estabilitate politikoa eta instituzionala protagonista izan dira eta ezaugarri hau guztiz beharrezkoa da proiektu desberdinak aurrera eramateko. Estabilitate honen adibide nabarmenena legegintzaldiaren urte bakoitzean udal Aurrekontuaren onarpena izan da. Izan ere, Aurrekontua edozein administrazioren tresna garrantzitsua da.

Azken legegintzaldi honetan Udalak aurrera eramandako inbertsioek garrantzi berezia izan dute. Pertsona adinduentzako parkea, Foruen Enparantzan zoladuraren zati baten berrikuntza, herriko erdigunean kotxeen aparkalekua, zoladura

berritzeko lanak, mendiko bideen berrikuntza, kirol anitzeko zonaldea, haur parkeen berrikuntza, Udal Haur Eskola berriaren instalazioak eta hauen ondoan herritar guztiek disfrutatu dezaketen parke berria, etab.

Inbertsioen atalean ezinbestekoa da Tokiko Azpiegitura Planaren bitartez aurrera eramane eta aurrera eramango diren lanak aipatzea. Hor dugu herriko argiteria publikoaren berrikuntza LED sistema ezarri, Udaletxean arkitektura oztupoak kentzeko lanak eta igogailua jarri eta honekin batera Isidoro Melero, La Ermita, Amaia eta Bakea kaleetan sareak eta zoladura berritzeko lanak. Puntu honetan ezinbestekoa da Zumalakarregi Enparantzan zoladura berritzeko hurrengo hilabeteetan aurrera eramango diren lanak azpimarratzea.

Hurrengo maiatzaren 26an Altsasuko Udalbatza berria aukeratzeko hauteskundeak ospatuko dira. 2015. urtean nuen ilusioa mantenduz eta azken lau urte hauetan lortutako esperientzia batuz, Geroa Bai-ren hautagaitzaren buru izango naiz berriro. Garrantzitsua da berriro bizikidetzan eta askatasunean Altsasu guztion artean garatu behar dugula defendatzea. Bide horretatik jarrai dezagun.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus**Koordinatzailea:**Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus**Diseinu zerbitzua:**GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
Miren Arregi Olivenza
gk@gkomunikazioa.eus**Administrazioa:**Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus**Zuzentzailea:**

Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a**BAZKIDEAK****Erredakzio burua:**Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus**Erredakzioa:**Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus**Maketatzailea:**Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus**Publizitatea:**Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus**ARGITARATZAILEA:**Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675**Nafarroako Gobernua**
Gobierno de Navarra



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Super-igandeen atarian

Laster hainbat hauteskunde izango ditugu, "super-igandeen" betekada. Martxan da politikaren makina. Nola ihes egin politikaz ez hitz egiteari? Badakigu den-dena politika dela, hartzen ditugun-dituzten-diren erabaki guztien atzetik beti dagoela politika: kulturean, osasunean, umorean, hizkuntzan, hezkuntzan, ekonomian, kontsumoan, zaintzan, gatazka konponketarako estrategietan, argazkilaritzan, familia ereduetan, kirolean, kliman, eta abar.

Boteretzearen azken erronka eragin politikoa, intzidentzia politikoa lortzea izan ohi da. Hala ere, ahaztu egiten dugu ekintza politikoa egunerokoan egiten ditugula, eta edonoren esku dagoela inplikazioa. Baina politika, ez da agintarien, politikarien, monopolioa! Emakumeoi hau onartzea kosta bazaigu ere, parte-hartze sozial eta politikoa egiten ari garela ohartu eta onartu beharra daukagu.

Udal eta Foru hauteskundeak ate joka ditugun honetan, denok daukagu zer egiteko eta zer esateko. Esaten da eragin politikoa, modu eraginkorrean lortzeko, inguruaren ezagutza sakona eta errealitatearen analisia egitea behar-beharrezkoa dela.

HALA ERE, AHAZTU EGITEN DUGU EKINTZA POLITIKOAK EGUNEROKOAN EGITEN DITUGULA

Horretarako, ez dugu urrutira joan beharrik, tokian tokiko esparruak ezin hobeak baitira. Gainera, hori den-denok egin dezakegu, gauden tokian gaudela.

Egunero egiten dugun edozein ekintza, txikia bada ere, politika al da? Noski, ez dut

zalantzarik. Hau ez dut nire uztatik atera, Kate Millet-en "Pertsonala ere, politikoa da" leloa gogoan izan dut. Baita ere, gogoratu dut Betty Friedanek "Feminitatearen mistika" liburuan emakumeak etxean mantentzeko "indar ideologikoa" salatu zuela. Angela Davis-en berriki itzultitako liburua ere gogoan izan dut, "Emakumeak, kultura eta politika". Egunero berdintasunaren alde lan egiten duten guztiak ere izan ditut gogoan.

Azken garaiko leloa ekarriz, "ez dago atzera bueltarik", emakumeon ahalduntzarekin eta jabetzarekin konpromisoa gero eta handiagoa da. Orain, parte hartzeko baldintzen hobekuntzak izan behar du erronka. Alde batetik, emakumeek gizarte eta politikan parte hartzea oztopatzen duten genero estereotipoak ezabatuz eta, bestetik, emakumeak erabaki guneeetara iristea ahalbidetuz; gero eta urrunago baitago politika "gizonen gauza" denaren ustea. Horren adibide, azken garaiko aldarri sozio-politikoetan ageri diren emakume-neskak ikusi besterik ez ditugu; bejondeizuela!!!



Altsasu Gurasoak taldeko kideak manifestazioa abiarazten.

Auzitegi Gorenari begira jartzeko garaia

Altsasuko auzian Justiziarik izan ez dela salatzen herria txiki gelditu zen igandean. Bederatzi eurodiputatuk epaiak Europak ezarritako irizpideak eta Europako Funtsezko Eskubideen Kartako gutxienez zazpi artikulua urratzen dituela gaztigatu dute.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
2022 urteko iraila. Eta 2026 urteko iraila. Gauzak aldatzen ez badira, epaia bere horretan mantentzen bada, espetxean lortu ditzaketen erredentzio egunak kontatu gabe, eta hirugarren gradua ematen badiete, goiko bi zifra horiek Altsasuko auziko aurreneko eta azken presoak kalera atera daitezkeen datak dira. Hiru urte eta erdi eta zazpi urte eta erdi arteko tartea litzateke.

Bitartean Altsasuko auziko zazpi presoak Zaballako espetxean txirrinaren erritmora bizitzen jarraituko dute, orain altxatu, orain ikasi, orain korrika egin, orain ziegan sartu... Bitartean euren senideek euren hutsunea

sentituko dute etxeetan. Kartzelako bisitak antolatuko dituzte. Eta ez dute erotu sentipena izan 60.000 pertsonaren babesa eta beroa jaso dutelako.

Helegiteak

Espainiako Auzitegi Nazionalako Apelazio Aretoak Altsasuko auziko epaia berretsi zuen hilaren 7an jakinarazitako epaian. Altsasun 2016ko lastailaren 15ean izandako gertakarietan terrorismo ez zegoela ebatzi zuen atzera ere. Epaian aldaketa bakarra izan zen Iñakiren espetxe zigorra 10 urtetik 6 urtera jaitsi zela. Defentsako abokatuek behala jakinarazi zuten epaiarekin ados ez zeudela 2 eta 13 urte

arteko espetxe zigorrak ezartzen direlako eta Espainiako Auzitegi Gorenean helegitea jarriko zutela. Absolutioa eskatzen dute.

Espainiako Auzitegi Nazionalako Jose Luis Peralas fiskalak helegitea aurkezteari uko egin dio. Beraz, bi urte eta erdi geroago Altsasuko gertakarietan terrorismo ez zela izan onartu du. Ez horrela herri akusazio gisa ari den Covitek, helegitea aurkeztu baitu. Dagoeneko bederatzi epailek esan dute Altsasuko ez zela terrorismoa izan: Nafarroako Lurralde Auzitegiak, Espainiako Auzitegi Nazionalako 1. Aretoak eta Apelazio Aretoak. Helegiteen ebazpena urte akaberan jakin liteke.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Batetik bestia

10:20 Eguneko albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN





Aurreko egunetik jende asko hurbildu zen autokarabana eta furgonetetan Altsasura.




Kukuerreka elkartearen larunbatean Altsasun lo egin zutenendako gosaria banatu zuten.



Kamiseta asko saldu ziren egunean bertan.



Kaleak hasi baino ordubete lehenago.



Pintxo-potea izan zen herriko puntu desberdinetan.



Manifestazio burua tren geratokitik igaro zenean.



Hedabide ugari elkartu zen manifestazioaren berri emateko.



Haurrak,
poesia eta gu:

SORTU, ANTZEZTU, KONTATU, ESAN



HITZALDI-LANTEGIA

NORK ESKAINIKO DU?
Yolanda Arrieta Malaxetxebarria idazle eta literatur dinamizatzaileak.

NORENDAKO DA?
Guraso, irakasle, irakasle-gai, hezitzaile, zaintzaile eta bitartekariendako. Haur Literatura gustuko duen edonorendako.

NOIZ IZANGO DA?
Apirilaren 6an, larunbatarekin, 10:00etatik 13:00etara.

NON IZANGO DA?
Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

NON EMAN BEHAR DA IZENA?
Lantegian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aldeaz aurretik euskara1@sakana-mank.eus helbidean. Tokiak mugatuak izanen dira. Matrikula 10 eurokoa izanen da.

ZEINTZUK DIRA HELBURUAK?
Haur poesia ezagutzeko modurik eraginkorrena frogatuko dugu: sortu, antzeztu, kontatu, esan. Horretarako, hainbat joko eta ariketa egingo ditugu, eskua eta burua ez ezik, gorputz osoa ere mugituz. Erabat praktikoa izango da.

Antolatzailea:

Laguntzailea:







Burua Garbitokira iristerakoan jende andanak egin zion harrera.



Manifestazioak auzipetuen etxeetatik egin zuen ibilbidea.



Presoen informazioa bakoitzaren etxean.



Buruan auzipetuen gurasoak pankarta eramaten.



'Ez da justizia' izan zen lelo garrantzitsuen.



Bukaerako ekitaldian auzipetutako Ainarak hartu zuen hitza.



60.000 lagunek bete zuten Altsasuko herria justiziarik ez dagoela aldarrikatuz.



Gurasoek bihotz-bihotzez eskertu zuten guztion elkartzuna.



Irurtzungo igerilekuak. ARTXIBOA

Igerilekuko aldagelak konponketa, astelehenetik

Parte hartze aurrekontuen bidez irurtzundarrek udalaren 35.000 euro lan horietara bideratu dituzte

IRURTZUN

Bederatzigarren urtea izan da irurtzundarrek udalaren diru sail bat, 35.000 euro aurten, zertara bideratu behar zen erabaki behar zutela. Berriki egindako aukeraketa prozesuaren ondoren igerilekuetako aldagelak konponketa erabaki zuten irurtzundarrek. 127 botorekin babes gehien lortu zuen aukera izan zen. Aitor Larraza Carrera alkateak jakinarazi digunez, lanak heldu den astean hasiko dira, uda sasoirako prest egon dadin azpiegitura.

Beste hiru lan ere aukeran zizuten irurtzundarrek: plazako frontoiaren atzeko haurrentako jolas parkea handitzearen alde 103 boto izan ziren; frontoi atzeko aparkalekua porlanarekin edo asfaltoarekin hobetzearen alde 98 boto eman zituzten eta, azkenik, frontoi estaliko berogailua gaur egungo beharretara egokitzearren alde 67 boto izan ziren.

Bestalde, Larrazak jakinarazi digu Bi Ahizpe kaleko lanak gaur despedituko direla. Arkitektura oztipoak kendu eta eraikinetako euri-urak hartzearekin batera zorua berritu dute. Azken hila-beteetan Irurtzungo Udalak zorua hobetzeko lanak egin ditu Akaborro industrialdeko kale batean eta Ardubil kalean.

Alde Zahar guztian jarriko dira LED argi berriak

Argiteria publikoa berritzearekin batera haren aginte koadroak ere konpontzen ari dira

ETXARRI ARANATZ

Ettxarri Aranazko Udalak legegintzaldi honetan Aldapasoro, Kale Nagusia, Santa Kitz eta San Kiriko kaleetan LED argiak jarri zituen. Argiteria publikoa berritu, energia eraginkortasuna handitu eta argindar kontsumoa murrizteko udalak jakinarazi zuen otsailaren 25a eta apirilaren bitartean hainbat kaletan LED argiak jarriko zituela: Kale Nagusiaren sortaldean (udaletxe inguru guztia), Aritzeta bide, Zugarreta, Bureina eta Andra Mari inguruko kale guztiak. Behin lanak egiten hasita, Kale Nagusiaren mendebaldera dauden kaleetako argiteria berrituko direla jakinarazi du udalak.

Lan horiekin batera, herriko argiteria publikoko sei koadroetatik hiru zaharkituta zeudela eta berritu egingen dira, euren kable-sarearekin batera. Udaletxean, Arluzepe eta Bureinan dauden koadroak dira. Bestalde, Arluzepeko eta Bureinako koadroak bateratu egin behar dira, argiteriaren kudeaketa sinplifikatzeko eta efizienteagoa izateko. Eneka Maiz Ulaiar alkateak esan duenez, neurri horiekin "ia herri osoko kaleak berrituak geratuko dira, baita ere beharra duten koadro elektrikoak ere".

Eskola handitzeko lanak despeditu dituzte

Ardubil kaletik sarbidea duen eraikin berriak 491,45 m²-tan 6 gela, ikasleendako eta irakasleendako komunak, biltegia, 3 bilera gela eta larrialdietarako eskailera eta ekintza klasifikaturako egokitzapena ditu. Bigarren solairua egiteko aukera dago

IRURTZUN

Lanak martxoaren lehen astean despedituta, eraikina garbitzea eta altzariekin janztea faltako da. Hala ere, ikasurte berrira arte ez ditu ikasleak hartuko. Halaxe jakinarazi digu Aitor Larraza Carrera alkateak. Horregatik, udalak udara arte itxarongo du patioan areto futboleko, saskibaloiko eta kolaborazio kiroleko pista margotzeko. Sarbide nagusian ate berri bat jartzeko lanak ere egin ditu udalak. Lanak egiterakoan ikasleen segurtasuna bermatzeko patioaren zati bat itxi zen. Hori, dagoneko zabalik dago eta ikasleek eraikin berriaren azpian dagoen estalpea ere erabil dezakete.

Atakondoa eskola publikoko zuzendari Felix Reyk esan digunez, eraikin berriak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak hartuko ditu, "sei gela dira". Gaur egun Irurtzungo eskolak 3 eta 14 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu, hau da, Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara arte; Irurtzungoak, Arakilgoak, Imozkoak, Ollokoak, Goñikoak eta Itzakoak. Reyk gogorarazi duenez, "duela 15-20 urte dira ikastetxean espazio falta dagoela, bi lerro izatetik hiru lerro izatera pasa ginenetik hain zuzen ere".



Ikasleak eskolako patioan eta eraikin berria eskuinean. ATAKONDOA

Espazio faltagatik 2010-2011 ikasurtean moduluetan bi gela prestatu zituzten. Eta beste bi hurrengo ikasurtean. Reyk jakinarazi digunez, "Hezkuntza Departamentuan esan digutenez moduluak urte batzuetan egon daitezke. Guk erabilera emanen diegu. Lau gela daude, haietako bi batu eta psikomotrizitate gela egingen dugu, beste batean orientazio gela jarriko dugu".

Irurtzungo eskola komunitate osoaren aldarrikapen zaharra da ikastetxean 0-3 zikloa eta DBH 3. eta 4. mailak izatea. Ikasleak

16 urtera arte Irurtzunen egoteko. Azken horren ondorioz ikasleek DBH guztia Atakondoa egingen lukete eta horrela koadrilak eta eskualdeko gazteen arteko harremanak sendotuko liriteke. Reyk azaldu digunez, "pedagogia eta akademia ikuspegitik hori da egokiena. DBHko institutua diru-kontuengatik ez zen egin".

Eraikin berriak patioan estalpe bat sortzen du. Lanek 914.203 euroko aurrekontua zuten. Eraikinaren gainean bigarren solairu bat egiteko aukera dago.

Txooooo!

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

948 467 876 • Altsasu

PORTUKO @stndegia

Altsasu: 948 563 822
Ettxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

Trimaneko langileak langabeziara pasa dira

Urte bete kobratu gabe egon dira Altsasuko lantegian gelditzen ziren 18 langileak. Haien kontratuak azkendu dituen espedientea akordiorik gabe itxi da. Hartzekodunen konkurtsoko administratzaileak erruzko konkurtso kalifikazioa eskatu du epaitegian

ALTSASU

Triman Minerals SAU enpresako langileei kontratuak eteteko enplegu erregulazio espedientea (EEE) ezarri zieten martxoaren 11n. 45 langile langabezia gelditu dira, haietako 32 Nafarroan, 18 Altsasan. Langileak urte bat baino gehiago eman dute ezer kobratu gabe. Orain Soldatak Bermatzeko Funtsetik zor zaien soldataren zati bat eta kalte ordaina kobratu zain daude.

LAB sindikatuak jakinarazi duenez, kontratuak eteteko EEE akordiorik gabe itxi zen. Horregatik, "hurrengo egunetan kalera-teen kontrako beharrezkoak diren demandak jarriko ditugu".



Trimaneko langileak euren egoera salatzeko manifestazioa egin zuten.

Hartzekodunen konkurtsoa

Triman Minerals SAU enpresa hartzekodunen konkurtsoan dago garagarrilaren 5etik. Langileak urte bat pasa daramate soldatarik jaso gabe eta hartzekodunen konkurtsoaren administratzaileari alegazioa eta helegitea egin dizkiote. LAB-etik diotenez, "Bardirudi Trimanen gertatutakoa argitzen hasi dela". Izan ere, administratzaileak Merkataritza-erloko Iruñeko 1. epaitegiari Trimanena erruzko konkurtsoa deklaratu zezala eskatu zion hilaren 14an. Deklarazio horrek enpresa kudeatzen zuten San Segundotarrei eragitea eta Saher 2000 SL enpresa konplize izendatzea eskatu dio epaileari. Hiru San Segundotarrek hartzekodun gisa zituzten eskubideak gal ditzatela eskatzen dio administratzaileak epaileari. Aldi berean, pertsona fisiko eta juridiko horiek 923.838,8 euro bueltatu ditzatela eta bi urtetan ondareak administratzeko desgaitzeko eskatu dio epaileari.

Sindikatu abertzaleko kideak "pozik" daude administratzaileak hartutako jarrerarekin, "norabide zuzenean emandako pausoa

da. Altsasuko lantegia zabaltzea dagoeneko ezinezkoa izan da, baina zuzendaritzaren parte hartzerik gabe askoz errazagoa izan da zorraren ordainketa eta beste edozein alternatiba". Hau da, inbertsoreren batek lantegiaren alde egitea eta lanpostuak sortzea. LABeko kideen iritziz, orain "itxaron daitekeen bakarra da epaileak aipatutako pertsona fisiko eta juridikoak errudun jotzea".

LABeko kideen iritziz, enpresan gertatutakoa "bereziki langileei eta orokorrean Nafarroari egindako Iruzurra izan da". Gogoratu dute Sodenak 1,5 milioi euro eman ziola enpresari Aljerian negozio aukera bat gauza zezan. Horregatik, LABetik gaitzatu dute: "Triman Minerals SAU, SAHER 2000 SL eta Moncayo Real Estate SLU enpresa sare bat osatzen dute eta langileekiko eta Nafarroarekiko ardura bere egin behar dute".

Altsasu Trimaneko langileak euren egoeratik protesta egiteko manifestazioa eta epaitegi aurrean kontzentrazioak egin dituzte. Parlamentuan ere izan ziren.

HERRIAREN BORONDATEA ERRESPECTATU

TREN SOZIALA BAI AHT Gelditu

MANIFESTAZIOA

MARTXOAK 30 · ALTSASU · 18:00 · SUHILTZAILE PARKINETIK



HERRIAREN BORONDATEA ERRESPECTATU

Hitzarmena betetzeko eskatuz, greba

Portland enpresak lan hitzarmeneko hainbat puntu betetzen ez dituela salatzeko eta zuzendaritzak hura bete dezala 24 orduko greba egin zuten langileek asteartean eta gauza bera eginen dute heldu den asteartean

OLATZAGUTIA

Porlandegiko enpresa batzordeko kideak zuzendaritzarekin urte bat daramate lan hitzarmena bete dezatela eskatuz, "eta denbora pasa hala lan hitzarmenaren gero eta urraketa gehiago pilatzen ari gara. Enpresak lan hitzarmenetik interesatzen zaiona hartzen du, eta besteari kasurik ez dio egiten. Edalontziak gainezka egin du". Enpresa Batzordeko (5 ELA, 3 UGT eta CCOO 1) presidente Ruben Garciaren azalpenak dira horiek.

24 orduko lanuzteak ELAk eta CCOOk deitu dituzte. Enpresa batzordeko buruak jakinarazi digunez, asteartean porlandegia

gelditu egin zuten. Aldeen arteko hurbiltzerik ez da egon.

Lan hitzarmenaren urraketa-tako batzuk aipatu dizkigu Garciak: "hitzarmenari ez dagozkion lan egutegiak ematen dituzte; kontratazio berriei halako egutegiak ezarri nahi dizkiete; ilbeltzaren 15erako oporren egutegia izan behar genuen langile guztiok baina batzuk ez dute; egutegietan egiten dituzten aldatetekin aparteko orduak ordaintzeari utzi nahi diote..." Portlandegiko langileen ordezkariak azaldu digunez, 104 dira lanean. "Zuzendaritzak dio lan ona egiten ari garela, baina plantzilla eskasa da, lan handia dago.

Lana urtetik urtera igotzen ari da. Bi labeetako bat etengabe lanean ari da. Baina haiek ez dute lan hitzarmena betetzen". Garciak gogorarazi du duela hiru urte lan hitzarmena sinatzean "behetik" jo zuela aurreko enpresa batzordeak: "besteak beste, ordainketetako baten % 12,75 jaitsiera onartu zen eta pentsio plana kendu zen. Nahikoa ahalegin egin genuen". Urtea despeditzearekin batera bukatuko da lan hitzarmena. Langileak hura berritzeko prest daude, baina guztiaz hitz egiten bada. "Guk konponbiderako eskua luzatua dugu, enpresaren ardura da orain".

Altsasuko hiru udaltzainen oposizioa bertan behera

Lehen ariketa egiteko egunean ez zen inor agertu eta lanpostuak bete gabe gelditu dira

ALTSASU

Altsasuko Udalak udaltzaingoko hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onartu zuen 2014an. Nafarroako Gobernuaren bidez deialdi bateratua egin zuten. Baina helegiteek prozesua asko luzatu zuten. Oposizioko lehen egunean ez zen inor aurkeztu. Beraz, Altsasuko Udaleko hiru udaltzain lanpostuak bete gabe gelditu direla deklaratu dute.

Altsasuko Udalak gaur egun udaltzain lanpostu bat betetzeko deialdia martxan du. Deialdiak berak jasotzen zuen bigarren lanpostu bat betetzeko aukera. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu digunez, bost pertsona aurkeztu dira deialdira eta bostek proba teorikoa eta fisikoa gainditu dituzte. "Orain proba psikoteknikoa eta mediku probak egin beharko dituzte. Bostek guztia gainditzen badute deialdia handitzeko ahalegin guztiak egingen ditugu. Horrela, 2017an eta 2018an jubilatutako agenteen plazak eta aurreko deialdian hutsik gelditu zirenak beteko genituzke". Hala balitz, bost pertsona horiek Nafarroako Segur-tasun Eskolan sartuko liriateke eta azaro akaberan udaltzain gisa lanean hasiko liriateke. Egun bi laguntzaile besterik ez daude.



Iturmendiarrak haurrendako jolas parkean, haren ondoan dago Konsistorial kalea. ARTXIBOA

Berokuntza sistemaren oinarria jarriko da

Konsistorial, Zirrinkale eta Elizalde kaleetako sareak eta zorua berrituko dira. Herriko 25 etxe berotzeko aukera emanen duen sistemaren hodiak jarriko dituzte aurten. Berogailua eta ur beroa basoko egurra ezpalduta lortuko da

ITURMENDI

"Iturmendiko aurrekontua 250.000 euroren bueltan egoten da, ez da 300.000 eurora iristen. Baina aurten lanengatik handitu egin da". Victoriano Gabirondo Lanz alkatearen azalpenak dira. Izan ere, Iturmendiko Udalak 687.660,02 euro izanen ditu aurten. Konsistorial, Zirrinkale eta Elizalde kaleetako euri uren eta ur beltzen sareak banatu eta gainontzeko sareak eta zorua berrituko dituzte. Lan horietarako udalak 300.000 euro inguru bideratu ditu. Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planaren bidez lanek %70eko diru-laguntza dute. Ur sareak berritzera 56.800 euro bideratuko ditu Sa-

kanako Mankomunitateak. Udalak beste 40.000 euro kaleotako argiteria publikoko kableak lurperatu eta egungo bonbillak LED argiengatik ordezkatzeko. Gabirondok azaldu digunez, herriari jartzen diren mota horretako aurreneko argiak izanen dira. Lanak udan egingen dira.

Berokuntza sistema

Herriaren erdialdean lurra jasoko dela baliatuz, Iturmendiko Udalak berokuntza sistema jartzeko baliatuko du. Gabirondok azaldu digunez, herriko basoko egurrarekin udaletxea, eskola zaharra eta gaztetxea berotu nahi dituzte eta ur beroa eraman. "Baina behin hodiak jarrita,

haiek pasatzen diren etxeak ere berotzeko eta ur beroa jasotzeko aukera izanen dute. Parean arketeta eta bi hodiak utziko zaizkie". 25 etxe direla jakinarazi digu alkateak, eta haiekin bihar bileraren egunen dutela ere.

Gabirondok argitu digunez, hiru urtetan egingen duten inbertsioa da berokuntza sistemarena. "Joan den urtean hodiak erosi genituen. Aurten haiek jarriko ditugu. Horretarako 15.000 euro bideratu ditugu. Eta heldu den urtean gaztetxe ondoko etxean biomasako bi galdara komunitario jarriko ditugu eta martxan jarriko da berokuntza sistema". Herriko basoko egurra ezpaldu eta horrekin elikatuko dituzte

galdarak. Beharrezkoa duten ezpala egiteko zuhaitzak udan moztuko lituzketela gaztigatu du alkateak: "109.000 tona ezpal lehor behar dira, eta berdean 150.000 tona. Enborrak ezpaltzeko makina alokatu eta zazpi bat ordutan lana eginga dago". Pagoa erabiliko dute galdaretan sua egiteko, merkatuan merke saltzen delako. Herriari egingen den erabilera horrek basoaren kudeaketan ere lagunduko diela gaztigatu du Gabirondok.

Berokuntza sistema martxan jarri ondoren balorazioa egin eta egoki jotzen bada, alkateak ez du baztertzen etxe gehiagotara zabaltzeko aukera. "Horretarako, herriari barna zirkuitu berriak egin beharko liriateke eta galdarak pabilioi batean zentralizatu beharko liriateke". Halako sistema duen Arabako Sabando herriko esperientzia ezagutzen egon dira iturmendiarrak. "Gasolioa baino merkeago eta garbia da. Oso kontentu daude" azaldu digu alkateak. Gabirondok jakinarazi duenez, Europako % 50eko diru-laguntza jasoko du udalak, eta beste % 30 Nafarroako Gobernutik.

Beste inbertsioak

- **20.000** Medikuaeren etxeko teilatua konpontzeko.
- **20.000** Beheko basoko Ezkibel-Maubiako bidea konpontzeko.
- **19.000** Festak.
- **7.000** Sanpedroaldeko bidearen konponketa lanak despeditzeko drenatzea egitea.



ERABAKI ZURE BIDEA

Goierri Eskolak Ate Irekien Jardunaldira gonbidatzen zaitu.
Ezagutu ezazu Batxilergoko gure eskaintza.

Apirilak 6, larunbata, 10:30ean

www.goierrieskola.eus



Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062

Konpost festak Irurtzunen eta Ziordian

Sakanako Mankomunitateak jasotako materia organikoa Arbizuko hondakindegian konpostean bihurtzen du. Handik edozein sakandar pasa daiteke etxerako edo baratzerako konpost eske. “Herri batzuetatik ez dira etortzen eta haietara joatea egoki jo genuen”, azaldu digu Itziar Zudaire Salegi Mank-eko teknikariak. Horregatik, bi konpost festa antolatu dituzte: Irurtzungo plazan, asteartean, eta Ziordian, ostegunean, Iturri ondoan. Bietan 10:00etatik 13:30era egon dira. Herritar bakoitzak 30 kiloko bina zaku eskuratzeko aukera izanen du.

Hondakin bilketako Zerbitzuko teknikari Zudairek gogorarazi du sakandarrek urte guztian jaso dezaketela konposta Arbizuko hondakindegian. Konposta nahi duenak hondakindegiko bulegotik pasa behar du lehenik, izena eman eta gero hiru zaku betetzeko aukera du. 07:30etik 15:00etara dago zabalik hondakindegia.

Udan Euskaraz, matrikula garaia apirilaren 12ra arte

Olatzagutiko Udalak haurrendako udako goizeko euskarazko aisialdi eskaintza egin du, Udan Euskaraz. Aurten 2007 eta 2014 urte artean jaiotako haurrek eskaintzarekin parte hartzeko aukera izanen dute. Udalaren eskaintza garagarriaren 24tik, San Juan egunetik, garilarren 18ra arteko astegunetan, 10:00etatik 13:00etara. Haurren gurasoek ordainketa izena emateko garaian egin behar dute, telefonotik edo diru sarrera zuzenean udalaren kontuan eginez. Azken aukera horren alde eginez gero, ordain agiria udaletxera eraman behar da izen emate garaian.

Haur batengatik 35 euro ordaindu behar dira eta familia bereko 2 haur edo gehiagotatik 58 euro ordaindu behar dira. Ekonomia egoera larrian dauden familiek ez dute ordainketarik egin behar. Horretarako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostena jaso eta horrekin udalari eskaera aurkeztu behar diote.



Hemeroteka Urdiandik, Ziorditik eta Altsasutik pasa da.

Guaixe eta Oixe hemeroteka Arbizun kontsultatzeko

Hilabetekariaren eta astekariaren ale zaharrak ikusteko aukera izanen da liburutegian, 16:30etik 20:00etara

ARBIZU

Guaixek aurten 25 urte beteko ditu abenduan eta bere hasierak gogorazten dituen hemeroteka ibiltaria prest du, Arbizuko liburutegira astelehenean iritsiko dena. Han, propio, stand bat jarriko du Guaixe fundazioak, bertan eseri eta Sakanako euskarazko publikazioen ale zaharrak kontsultatzeko aukera izanen da. Alde batetik, 1994 eta 2002 artean argitaratu ziren Guaixeren hilabetekari guztiak. Eta, bestetik, 2001 eta 2003 urteen artean argitaratu ziren Oixe astekariak ere.

Garai bateko kontuak gogoratzeko, janzkera eta orrazkerekin harrizteko eta askoz gehiagorako ematen du Guaixeren hemeroteka ibiltariak. Gainera, irakurleak bere burua opa dezake orri-pasa ari dela. Hala bada, Guaixe fundaziotik gonbidapena: orriarekin batera argazkia ateratzea eta sare sozialetan **#batzengaituena** edota **#Guaixe25** traolekin partekatzea. Nahi duen guztiak standean dagoen photocall-arekin argazkia egiteko aukera du. Argazki horiek partekatze gonbidapena egiten du fundazioak ere.



UTZITAKO

Lanbide Heziketan graduatuak

Iruñeko Maria Ana Sanz Lanbide Heziketa institutuko goi mailako ikasleek graduazioa izan zuten ostiralean. Antolaketaz publizitate eta marketing ikasleak arduratu ziren, bi altsasuar barne: Simona Fratila eta June Otxoa de Eribe. Biek batera diploma jaso zuten: Gorka Avella irurtzundarra eta Jesus Palop, Ainhoa Lopez, Alexandra Fratila eta Andrea Popa altsasuarrak.



ARAKIL KULTURA

Izurdiagan zuhaitz gehiago

Arakilgo Zuhaitz Eguneko landaketa Izurdiagako elkartearen parean, ibai ondoan egin zen. 50 guztira, makal txuriak, makal beltzak, astigarrak eta intxaurreak. Luis Beraza Amoztegi kontzeju-buruak azaldu zuenez: “zuhaitz landaketarekin lortu nahi dugu haiek lurrrari eustea. Gainera, haien itzala ere nahi dugu, erreka eta ingurua berreskuratu nahi ditugulako”.



IRATXO ELKARTEA

Mus eta partxis iratxoak

Irurtzungo Iratxo elkarteak mus eta partxis txapelketako sariak banatu zituen larunbatean. Partxisean trebean Lourdes Beloki eta Txeli Garcia izan ziren, finalean Kontxi Ezkurdia eta Glori Guineari irabazita. Mus txapelketari dagokionez, Kontxi Etxeberria eta Juana Urrarendako izan ziren, Jesus Mazizor eta Jesus Dorairi finalean irabazi ondoren.+guaixe.eus

Igogailua udaletxean

Altsasuko udaletxean aste honetan jarri da igogailua martxan eta komunak pertsona guztiendako egokitu dira. Herriaren etxea arkitektura oztoporik gabe denendako irisgarria bihurtu da. Etorkizunean artxibo berria egokitzeko bulegoak egokitu nahi dira, eta udaletxea ondoko eraikina Udaltzaingoaren aldagela eta biltegi bihurtu nahi lukete





Altuna-Martija eta Elezkano II-Rezusta partida amaitu ondoren. UTZITAKOA

Binakakoan ez da sakandarren arteko finalik izanen

PILOTA Altunak eta Martijak 10 eta 22 galdu zuten eta finalerako kanpo geratu dira

ETXEBERRI

Igandean erabaki zen Irribarria eta Zabaletaren kontra nork jokatu duen apirilaren 7ko Binakako final handia. Altuna III.a-Martija edo Elezkano II.a-Rezusta, bietako bat sailkatuko zen finalerako. Finalurreko oso estua eta borrokatua espero zen, eta edozein sailkatu ahal zela uste zuten katedrak. Horren isla, dirua parean atera zen, Altunaren eta Martijaren aldeko joerarekin, agian. Izan ere, Binakakoa gaizki hasi zuten Altunak eta Martijak, baina gero buelta eman eta garaipekin pilatzen hasi ziren. Azken bi hilabeteak hil ala biziko partidak jokatu zituzten, eta tentsio hori ederki kudeatu zuten. Atzokoan ere hala izango zela espero zuten askok. Aurrean txapelketa bikaina egin zuten Elezkano II.a eta Rezusta zituzten, baina aurretik egindakoak ahaztu eta igandeko partidak erabakiko zuten nor sailkatuko zen finalerako.

Aurreikuspenak ez ziren bete

Partida hasi eta Elezkano II.ak eta Rezustak nahikoa izan zuten sei tanto egin 0 eta 6 aurreratu eta hordagoa jotzeko. Indartsu zegoen bikoa; Rezusta atzeko koadroetan agintean, ikusgarri, pilota ia erreboteraino atzeratuz, eta Elezkano tantoak behar bezala bukatzen. Aldiz, Altuna III.a bere buruarekin haserre zebilen, egoerari buelta nola eman aztertzeko. Martijak ezker horman bikain sartutako pilotakada bati esker satea berreskuratu zuten gorriek, Altunak eta Martijak,

eta erantzuna etor zitekeela uste zuten katedrak. 3 eta 6 gerturatu ziren gorriak. Baina Elezkano eta Rezusta ere defentsan bikain aritu ziren eta gorrien asmoak zapuztu zituzten. 4 eta 8tik 4 eta 13ko aldea hartu zuten Elezkanok eta Rezustak, baina Altunak eta Martijak ez zuten amore eman eta 7 eta 13 hurbiltzea lortu zuten.

Hortik aurrera Elezkanok hartu zuten agintea eta sekulako erakustaldia eman zuten bizkaitarrak: mota guztietako tantoak amaitu zituen eta ikusgarri aritu zen, Rezustaren laguntza paregabearekin. Altunari eta Martijari sufritzea tokatu zitzaizkien tarte horretan eta, azkenean 10 eta 22 galdu zuten. "Beraiek horren ongi jokatzen dutenean oso zaila da haiek irabaztea. Erraz maneiatu gaituzte" onartu zuten Altunak.

Hortaz, Danel Elezkano eta Beñat Rezusta izango dira apirilaren 7an Iker Irribarriaren eta Jose Javier Zabaletaren kontra Binakako finala jokatu dutenak. Tamalez, ezinezkoa izan da arakildarren arteko finala jokatzeko.

Irribarriak eta Zabaletak Victor eta Albisu izan zituzten aurkari Binakako finalerdietako 3. jardunaldiko partidaren. Ez zegoen ezer erabakitzerik, lehenak finalerako sailkatuak eta bigarrenak aukerarik gabe zeudelako, baina larunbatean, Labriten, irabaztera atera ziren bi bikoak. Irribarriak eta Zabaletak partida bikaina egin zuten eta 12 tantotan utzi zituzten Victor eta Albisu.



Andra Mari ikastolako kirolariak sokatiran.

Andra Marikoak etxean nagusi izan ziren

HERRI KIROLAK Nafarroako Herri Kirol Jokoen 2. jardunaldia Etxarri Aranatzeko jokatu zen igandean. Haurren mailako proba konbinatuan izan ezik, gainontzeko proba guztietan gailendu ziren Andra Marikoak

ETXARRI ARANATZ - ALTSASU

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen 2. jardunaldia hartu zuten Etxarri Aranatzeko Euskalerriri frontoiak. Eguerdian Altsasuko *Ez da justizia* manifestazioagatik arratsaldera atzeratu zen jardunaldia. Etxean jokatzeko eta zaleak aldekoak izatea mesede egin zion Andra Mari ikastolako taldeei. Proba guztietan gailendu ziren Andra Marikoak, haurren mailako proba konbinatuan izan ezik; bigarrenak izan ziren proba horretan.

Kimuak

Proba konbinatuetan, kimuen mailan 20 talde lehiatu ziren, 5 multzotan banatuta. Denbora guztiak kontuan hartuta, Andra Mari 6 izan zen talderik azkarrena (7:14). Sakanako gainontzeko taldeei dagokionez, Andra Mari 4 hirugarrena sailkatu zen (7:18), Bargagain zazpigarrena (7:34), Andra Mari 7 zortzigarrena (7:40), Andra Mari 3 bederatzigarrena (7:42), Andra Mari 5 hamarga-

rena (7:49), Intsusburu 11.a (7:49), Andra Mari 2 hamabigarrena (7:50), Andra Mari 1 16.a (8:03) eta Gainsol 20.a (8:21).

Haur proba

Haur mailako proba konbinatuetan 10 talde lehiatu ziren, hiru multzotan. Igantzi izan zen azkarrena (9:20), Andra Mari 3 bigarrena (9:33), Andra Mari 1 bederatzigarrena (11:44) eta Andra Mari 2 hamargarrena (12:54). Bukatzeko, kadete mailako proba konbinatuan 7 taldek hartu zuten parte, bi multzotan banatuta. Andra Mari izan zen azkarrena (9:54), Iñigo Aritzaren aurretik (10:25).

Sokatira

Sokatirari dagokionez, haurren mailan (480 kg) 9 taldek hartu zuten parte, bi multzotan banatuta. A multzoan Andra Mari 4 izan zen finena (5 puntu) Andra Mari 2 taldearen aurretik (4 puntu). Iñigo Aritza laugarrena sailkatu zen (2,5 puntu). Eta B mul-

tzoan Andra Mari 3 gailendu zen. Andra Mari 1 hirugarrena sailkatu zen.

Kadeteak

Kadeteen mailan (540 kg) lau talde A multzoan aritu ziren eta hiru talde B multzoan. A multzoan Andra Mari 1 taldeak irabazi zituen saio guztiak (4 puntu) eta B multzoan Andra Mari 2 taldeak eta Iñigo Aritzak berdindu egin zuten eta 2,5 puntu bildu zituen talde bakoitzak.

Nafarroako Kirol Jokoen 3. jardunaldia igandean Erratzun

Iruñeko Txantrea auzoan eta Etxarri Aranatzeko lehenengo eta bigarren jardunaldiak jokatu ondoren, Nafarroako Herri Kirol Jokoen 3. jardunaldia igandean jokatu da, goizeko 10:30etatik aurrera, Erratzun. Jakina denez, txapelketa 4 jardunaldi jokatu dira eta talde onenak apirilaren 14an Altsasun jokatu den finalerako sailkatuko dira.



Oihane Palomares, Erkuden Moreno, Ane Gil, Irati Irigoien eta Gerardo Moreno. UTZITAKOA



Erkuden Moreno brontzezko dominarekin podiumean. UTZITAKOA



Sutegiren mendi martxa. ARTXIBOA

Bulgariatik domina bat ekarri du Bargagaineak

TAEKWONDO Moreno, Gil, Irigoien eta Palomares Bargagain klubeko taekwondolariak WTE Multi European txapelketan aritu ziren, Sofian. Maila altua erakutsi zuten eta Morenok brontzea irabazi zuen

Aurreko asteburuan WTE Multi European Taekwondo txapelketan jokatu zuten Sofian, Bulgarian. Bertan Altsasuko Bargagain klubak ordezkatzeko lau kirolari aritu ziren: Oihane Palomares, Erkuden Moreno, Ane Gil eta Irati Irigoien. Goi mailako txapelketa da eta hainbat Europako Txapelketetarako eta Gazte Joko Olimpikoetarako sailkapen-txapelketa da. Oihane Palomaresek 21 urteko azpiko mailan aritu zen, Erkuden Moreno kadete mailan eta Ane Gil eta Irati Irigoien junior kategorian. Gerardo Moreno irakaslearekin egon ziren Sofian.

WTE Multi European Taekwondo txapelketaren maila

altua nabarmena zela esan du Beatriz Fernandez Bargagain klubeko juntako kideak. Europa osoko taekwondolariek parte hartu zuten. Hortaz, Bargagain klubeko lau kirolariek goi mailako arerioak izan zituzten.

Domina bat

Europako taekwondolarien eta selekzioen kontra aritu ziren Bargagain klubekoak. Arerioak ezagutzen ez zituzten arren, "oso ongi" aritu zirela esan du Beatriz Fernandez Bargagain klubeko juntako kideak. Erkuden Morenok brontzea irabazi zuen bere kategorian. Errusiarraren kontra aritu zen konba-

tean eta azken segundotan galdu zuen, hirugarren sailkatuz. Konbate "oso bizia" izan zela esan du Fernandezek. Greziarrak irabazi zuen Morenoaren kategorian.

Maila altua

Europako txapelketan parte hartu zuen Bargagaingo beste taekwondolaria Irati Irigoien izan zen, eta maila altua erakutsi zuela esan du Fernandezek. Ez zuen dominarik irabazi, baina azken konbatea kategorian irabazi zuenaren kontra galdu zuen.

Gil eta Palomares ere "oso ongi" aritu zirela esan du juntako kideak. Izan ere, txapel-

ketara joan aurretik esan bezala, bazekiten maila altua zela eta arerioak ez zituzten aurretik ezagutzen. Hortaz, txapelketan parte hartu ez ezik, "etxetik atera eta kanpoan dagoena ikusteko esperientzia bikaina" izan da Sakanako kirolariendako.

Bargagain

Bargagain Taekwondo Taldearen barruan 100 taekwondolari inguru trebatzen dira Altsasun, Gerardo Moreno irakaslearekin. Olaztin taldea sortu dute eta Nafarroako 2018ko klubik onena izendatu zuten Altsasuko taekwondo klubak.



Igandean egingo dute Olaztiko mendi martxa

Sutegi taldeak antolatutako 29,56 km-ko ibilaldia goizeko 7:00etan abiatuko da plazatik

Olaztiko Sutegi klubak mendi martxa antolatu du herriko inguruetan barna. Igandean goizeko 7:00etan jarri dute hitzordua Olaztiko plazan.

Hasieran Altzania aldera joko dute: Auntzetetik pasa eta Iru mugaraino iritsiko dira, Lurgorrietatik Ziordira jaisteko. Ondoren, Ziordiko gasolindegira joko dute eta bertatik Urbasarantz joko dute. Ziordiko Portu Zaharretik igoko dira Gainsolera, eta bertatik Urbasara helduko dira. Bargagain izango da hurrengo muga, eta handik Txondorretako bidea hartuko dute, Portu Zaharretik herrira heltzeko. 29,56 km-ko mendi ibilaldia.

Saldisek azken segundotan berdintzea lortu zuen

ARETO FUTBOLA Interren kontra bosna berdinduta, hirugarren postuari eusten dio Osasuna Magnak

Asteburuan lehen mailako areto futboleko 26. jardunaldia jokatu da. Sailkapenean hirugarrena den Osasuna Magna Xotak arerio zuzena hartu zuen atzo Anaitasunan, Movistar Inter talde madrildar ahaltsua.

Sailkapeneko hirugarren postua zegoen jokoan.

Imanol Arregiren mutilei erremontatzea tokatu zitzaizen ia partida guztian barna. Elisandrok aurreratu zuen Inter Movistar, eta berdintzea lortu zuen Adri

Ortegorok. Bigarrena sartu zuen atzera ere Interrek, eta 2 eta 1 galduta joan ziren atsedena dira bi taldeak. Orduan aurreratu ziren lehenengoz Imanol Arregiren mutilak, Alex Llamasek sartutako gol bati esker, baina gutxi irau zuen pozak, hirura berdindu baitzuen Interrek, Elisandrok bosgarren gola egin eta gero. Partida horrela despedituko zela zirudienean, Dani Saldise irurtzundarra izan zen protagonista bosgarren gola sartu baitzuen, berdinketarena.



Dani Saldisek azken segundotan berdintzea lortu zuen. UTZITAKOA



2018ko Errugbi kanpua. Nobedadea izan zen iaz. ARTXIBOA

Uda, kirola egiteko garaia

CAMPUSAK Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak aurtengo udarako antolatu dituen kirol campusen berri eman du. Futbolaz, triatloiaz eta errugbiaren gain, surf campusa eskainiko da aurten lehenengo aldiz

Udarako antolatzen dituen campusen berri eman du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak. Futbol eta triatloi campusei iaz errugbi campusa gehitu zitzaion, eta aurten segida izango du campusak. Gainera, surf ikastaroa izango da lehenengo aldiz udako campusen artean. Hortaz, campusak surfarekin hasiko dira: ekainaren 15ean eta 16an izango da, Zarautzen. Uztailaren 1etik 13ra futbol campusak izango dira, Altsasun eta Uharteko Arakilen. Triatloi taldea uztailaren erdialdetik bukaerara izango da Altsasuko kiroldegian eta, udako campusak amaitzeko, errugbi campusa izango da uztailaren 29tik abuztuaren 2an, Urdiainen.

Aipatu campusetan izena ematea Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus, www.

sakana-mank.eus) egin behar da. Ordainketa Mankomunitateko kontu zenbakia: ES 453035 0116 93 1160003328 (Euskadiko Kutxa). Ordaintzerakoan partaidearen izen abizenak eta aukeratutako campusa zehaztu beharko da.

Zarauzko olatueta surf egiten, ekainean

Aurten lehenengo aldiz antolatu du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak surf ikastaroa. Ekainaren 15ean eta 16an izango da, Zarautzen. Sakanako Mankomunitateak autobusa eta surf ikastaroa antolatuko du, eta 18 urtetik gorakoendako edo familiar egiteko ikastaroa izango da. Hau da, familia bakoitza da bere haurren arduraduna. Izena ematea apirilaren 12an zabalduko da eta ikastaroa bete ahala itxiko da.

Zarautzera joateko autobusa 14:00etan aterako da Ziorditik

eta partaideak herriz herri jasoiko ditu. Surf ikastaroa 16:30etik aurrera hasiko da eta 1,5 ordukoa izango. Autobusa 20:30etan aterako da Zarautzetik. Hastapenerako ikastaroa izango da, 40 euroko prezioa du eta surfaren aritzeko beharrezko guztia dago barne. Bakarrik autobusa erabili nahi duenak 10 euro ordaindu dezake.

Uztailaren, futbol campusa

Sakanako Mankomunitateko futbol campusa uztailaren 1ean hasiko da. Lehendabiziko txanda uztailaren 1etik 6ra izango da, 2004 eta 2009 urte bitartean jaiotako neskendako eta 2007 eta 2009 urte bitartean jaiotako mutilendako. Hurrengo astean, uztailaren 8tik 13ra, 2004 eta 2006 urte bitartean jaiotako mutilendako.

Malen Beraza eta Iokin Lobo izango dira entrenatzaileak. Egu-



nero 9:30etik 14:00etara arituko dira futboleko trebatzen. Teoria eta praktika uztartuko dituzte kategoria bakoitzeko gaiak aztertuz. Jolasen bidezko metodologia landuko dute. Campusa bukatzerakoan igerilekura joango dira eta Errealaren egoitzara, Anoetara, irteera egingo dute ere.

Gutxienez 14 parte-hartzaile eta gehienez 30 aste bakoitzean, izena eman ahala tokiak betetzen joanen dira. Beraz, futbol campusean interesa dutenei lehenbailehen izena ematea aholkatzen du antolakuntzak. Tokia gordezko ordainketa agiria aurkeztu behar da Sakanako Mankomunitatean. Behar izanez gero kirol zerbitzuak itxaron zerrenda osatuko du.

Izena ematea martxoaren 25ean hasi zen.

Uztailaren bigarren hamabostaldian, triatloi campusa

Altsasuko Zelandi kirolgunean egingo da triatloi campusa uztailaren 16tik 27ra. Goizeko 11:00etatik 13:00etara egingo da trebakuntza. Aitor Mozo eta Urko Berdud izango dira begiraleak eta 8 urtetik 16 urte bitarteko gazteek eman dezakete izena triatloi campusean. Korrika, igeriketa eta txirrindulek.

larritza batzen dituen kirol honek eta campuseko parte hartzaileek teoria eta praktika uztartuko dituzte, kirol batetik bestera egin beharreko trantsizioak nola egin ere landuko dute jokoen bidez.

Uztailaren 20an Sakanako XVII. Triatloia antolatuko du, eta bertan aritzeko aukera izango dute triatloi campusean ariko diren gazteak. Triatloi campusean parte hartzeko izen ematea ekainaren 15era arte egin daiteke eta lekuak bete arte egongo da zabalik, kuota 40 eurokoa da.

Errugbi campusa bigarrenez

Errugbi campusa izan zen iazko nobedadea eta aurten esperientziarekin errepikatuko du Sakanako Mankomunitateak. Belar naturaleko Urdiango futbol zelaian egingo da uztailaren 29an hasi eta abuztuaren 2an amaitu. 8 urtetik 16 urte bitarteko gazteek parte har dezakete. Errugbian trebatzeko campusa 10:00etatik 14:00etara izango da.

Egokitutako errugbi-zinta landuko da batez ere campusean eta teoria eta praktika uztartuko dituzte.

Izena ematea maiatzaren 25ean edo lekuak agortu arte egongo da zabalik. 35 euroko kuota ordaindu behar dute parte-hartzaileek.



EMAKUM. ERREGIONALA

26. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Itaroa 1-5

26. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Burlades - Altsasu 6-1

SAILKAPENA
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa 73
13 Altsasu 22

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:00 Mulier - Altsasu

Itaroak Altsasu hartu zuen mendean

Emakumezkoen erregional mailan 26. jardunaldia jokatu zen. Larunbatean Altsasuk Itaroa Huarte hartu zuen eta ez zen jardunaldi ona izan gure neskendako, liga irabazteko borrokan dauden Uharte Iruñakoek 1 eta 5 irabazi baitzieten.

Sailkapen orokorrean Osasuna Fundazioa da liderra (73 puntu), Itaroa Huarteri 3 puntu aterata (70 puntu). Denboraldi guztian barna borroka ederra dute aipatu bi taldeek. Altsasu 13. postuan dago, 22 punturekin. Asteburuan Mulier taldearen kontra ariko da Altsasu.



CBASKek garaipenarekin despeditu du lehen fasea

ATLETISMO 2. mailako azken jardunaldian CBASK-ek Fonseca Liceo Monjardini irabazi zion

Autonomia Arteko 2. mailan lehen faseko 22. eta azken jardunaldia jokatu zen asteburuan. Altsasuko CBASK taldea Fonseca Liceo Monjardin taldearen kontra aritu zen eta lehen fasea garaipenarekin despeditu zuen



Joan den urteko herri lasterketako une bat. ARTXIBOA

Ziordiko herri lasterketarako izena ematea zabalik dago

ATLETISMO Apirilaren 6an jokatu da Ziordiko herri lasterketa solidarioa eta izena ematea zabalik dago

ZIORDIA

Apirilaren 6an jokatu da Ziordiko herri lasterketa solidarioa. ziordirunningtaldea.wixsite.com/ziordirunning web gunean izena emateko aukera dago.

Lehenik eta behin kategoriatxikikoen probak jokatu dira, 17:00etatik aurrera. Ondoren, 17:30ean 2 km-ko herri lasterketaren txanda izango da eta, bukatzeko, 18:00etan, proba nagusiaren txanda izango da. Herrian barna prestatutako zirkuituari 3 itzuli eman beharko zaizkio, 6,8 km-ko proba osatzeko.

Ziordiko proba solidarioa da. Batetik Dravet fundazioaren eta Markelen aldeko zozketa erraldoia egingo da, eta, bestalde, Paris 365 jantoki sozialerako elikagai bilketa egingo da. Halaber, erabilitako errotulagailu eta boligrafoak jasoko dira, Dravet fundazioaren eta Markelen alde.

Aurretiazko izena ematea zabalik dago Ziordiko Running Taldearen web orrian: ziordirunningtaldea.wixsite.com/ziordirunning. Kategoriatxikiko lasterketetan parte hartzeko korrikalariak gutxienez 2 kg elikagai eraman beharko dituzte eta Markelen aldeko zozketarako gutxienez txartel bat erosi beharko dute (euro 1). Aldiz, lasterketa herrikoian parte hartzeko gutxienez 4 kg elikagai eraman beharko dira eta Markelen aldeko saskirako txartel bat erosi beharko da. Eta berdin helduen proban parte hartzeko.

Zozketak

Izena ematen duten lehen 120 pertsonen produktu lotea eta opari sorpresa jasoko dute opari. Horretaz gain, aurretiaz web gunearen bidez izena ematen dutenen artean sariak zozketatuko dira.

postuan despeditu du lehen fasea. Orain txapelketako 2. faseari ekingo diote taldeek eta CBASK taldea 1 eta 8 postuen arteko ligaxkan lehiatuko da. 2. fase honetan 6 jardunaldi jokatu dira guztira. Asteburu honetan atsedenaldia hartuko du txapelketak eta apirilaren 6an eta 7an jokatu da lehen jardunaldia. Iruñean ariko da CBASK, San Ignacio taldearen kontra, apirilaren 6an, 20:00etan, San Ignacio kiroldegian.

FUTBOL PREFERENTEA

24. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Etxarri Aranatz - Lagunak 1-0

SAILKAPENA
PREFERENTEKOK 1. MULTZOA

1 Burlades 47
11 Etxarri Aranatz 29

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

17:00 Aibares - Etxarri Aranatz

Etxarri Aranatz garaipena

Partida garrantzitsua zen hau etxarriarrendako, jaitsiera postuetan egonik, puntuak bildu beharrean baitzeuden etxarriarrendak. Aurrean arerio oso sendoa zuten, sailkapenean bigarrena den Barañaingo Lagunak taldea, lidergoa eskuratzeko borrokan murgildua dagoena. Beraz, partida oso konplikatu espero zen Etxarri Aranatz.

Etxarri Aranatzek hobe ekin zion partidari: hainbat gol aukera sortu zituen. Azkenean, 31. minutuan Arratibelek Etxarri aurreratzea lortu zuen. Bigarren zatian bere horretan jarraitu zuen partidak; Etxarri Lagunak baino hobe zebilen. Minutuak pasa ahala Lagunak taldea aurrera iristen hasi zen eta arriskua sortu zuen, baina Etxarri bikain defendatu zuen bere atea, eta horretaz gain, kontraerasoak probestuz gol aukeraren bat edo beste izan zuen. Preferente mailari eusteko hiru puntu oso garrantzitsu lortu zituen. Sailkapenean Burlades da liderra (47 puntu), Etxarri Aranatzek gora egin du sailkapenean eta 11.a da (29 puntu).

ELOMENDIKO FUTBOL T.

19. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Eneriz - Zaldúa 4-2

SAILKAPENA
ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Bidezarra 42
3 Zaldúa 38

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Ardoi - Altsasu

Zalduak Elomendiko lidergoa galdu du

Asteburuan Elomendiko Futbol Txapelketako 19. jardunaldia jokatu zen. Eneriz taldeak 4 eta 2 irabazi zion Arakilgo Zalduari. Horrela, Arakilgo taldeak lidergoa galdu du. Bidezarra da txapelketako lider berria, 42 punturekin, Elomendiren (39 puntu) eta Zalduaren (38 puntu) aurretik. Asteburuan hurrengo jardunaldia egongo da jokoan eta Zalduak Ardoi taldea izango du aurkari.

FUTBOL ERREGIONALA

3. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Urrozterra - Lagun Artea 2-0
Altsasu - Amaya 2-1

SAILKAPENA
IGOERA FASEKO A MULTZOA

1 Lagunak 9
3 Lagun Artea 6
6 Altsasu 3

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

Lagun Artea - Iruntxiki
Uni Navarra - Altsasu

Lagun Arteak galdu eta Altsasuk irabazi

Asteburuan erregional mailako igoera faseko 3. jardunaldiko partidak jokatu dituzte gure taldeek. Urrotzen jokatu zuen Lagun Artea Lakuntzako taldeak, Urrotzarraren kontra. Partida hasi eta berehala, 12. minutuan, Ibarrolak Urrotzarra aurreratu zuen. Lakuntzarrak saiatu ziren, eta gol aukera oso argiak izan zituzten, baina Urrozkoek ongi zaindu zuten bere atea.

Bigarren zatian erasora ateratu zuen Lagun Artea eta defentsan aritu zen Urrotzarra; ongi defendatu zuten etxeok, eta 61. minutuan bigarren gola egiteko aukera izan zuten. Lagun Artea bukaerara arte saiatu zen, baina ez zuen markagailua mustutzea lortu eta 2 eta 0 galduta, punturik gabe itzuli ziren lakuntzarrak.

Aldiz, Dantzalekun jokoan zeuden hiru puntuak etxean geratu ziren. Gauzak gaizki hasi ziren altsasuarrendako, Altsasuk gaizki egindako alderatze bat ate propioan sartu zen eta horri esker 0 eta 1 aurreratu baitzen Amaya, baina egoerari buelta eman eta bana berdintzea lortu zuten altsasuarrek, 20. minutuan Ormazabalek cornerra ateratzerakoan sartutako gol ikusgarriari esker.

Bigarren zatian Altsasuk gol aukera ederrak izan zituen, eta partida bukatzean zela, Javik sartutako penaltiari esker, garaipena lortu zuen Altsasuk.

Erregional mailako igoera faseko A multzoan Lagunak B da liderra (9 puntu) eta Lagun Artea hirugarrena da (6 puntu). Altsasu seigarren postura igo da (3 puntu).

Igandean, martxoaren 31n, Lagun Arteak sailkapenean zazpigarrena den Iruntxiki hartuko du eta Iruñean ariko da Altsasu, sailkapenean bosgarrena den Nafarroako Unibertsitatearen kontra.

Eneko Aramendiaren lehen garaipena

TXIRRINDULARITZA Aurten Goierriko TB-Laboral Kutxan taldean dabilen iturmendiarrak XXIV. Laukizko Udal Saria irabazi zuen larunbatean, Lehendakari Torneorako baliagarria den proba. Afizionatuetan lehenengo garaipena izan da

Eneko Aramendia Telleria txirrindulariak (Iturmendi, 1997) afizionatuen mailako bere palmaresa estreinatu du. Rural Kutxa-Seguros RGA taldean hiru urte aritu eta gero, aurten Goierriko TB-Laboral Kutxa taldera egin du salto Aramendiak, eta badirudi aldaketa ongi etorri zaiola, larunbatean afizionatuen Lehendakari Torneorako baliagarria den hirugarren proba, XXIV. Laukizko Udal Saria irabazi baitzuen, esprintean gailendu eta gero (3:14:40). Horrela, afizionatuen mailako bere lehen proba irabaztea eta palmaresa mustutzea lortu du iturmendiarrak. Horrekin batera, bere taldea, Goierriko TB-Laboral Kutxa izan zen probako talderik onena. Bestalde, Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Juan Fernando Callek irabazi zuen mendiko saria.

Mugitua izan zen Laukizko Udal Saria. 129 kilometroko proba azkar joan zen, eta, azkenean 10 txirrindulariz osatutako tropela iritsi zen batera helmugara. Borroka estuan, Eneko Aramendia gailendu zen esprintean, Lizarteko Jordi Lopezen eta Goierriko TB-Laboral Kutxako bere taldekide Julen Latorreren aurretik. Aipatzekoa da Goierriko TB-Laboral Kutxak lasterketa bikaina egin zuela, probako lehen 10 txirrindularien artean 5 talde horretako txirrindulariak izan baitziren, lehen bost postuetatik 4 Goierriko TB-Laboral Kutxakoak. Jakina, taldekako txapelketa irabazi zuen Aramendiaren Goierriko TB-Laboral Kutxak. Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Juan Fernando Calle zazpigarrena sailkatu zen.

Gainontzeko txirrindulari sakandarrei dagokionez, aurten Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin afizionatuetan debutatu duen Josu Etxeberria iturmendiarrak 46.a sailkatu zen,



Eneko Aramendia Laukizko Udal Sarian. UTZITAKOA

ETXEBERRIA LIZARRAN ARITU ZEN, ETA LEHEN SAKANDARRA IZAN ZEN

1:11ra, eta Telcom taldeko Alex Uncilla 57.a sartu zen, 7:37ra.

Eneko Aramendiak Gara egunkarian azaldu duenez, "garaipenagatik baino, nire burua leian, borrokan ikusteagatik" poztan da gehiago. Txirrindulariak gaineratu duenez, taldez aldatzearekin asmatu du. "Askatasun gehiago eman dit. Garaipena lortu ahal izan dut, baina poztan nauena da nire burua peleian ikustea; konfiantza gehiago eman dit eta juniorretan bezala sentitzen naiz, lasterketengatik borrokan. Entrenatzeraz joateko ilusio gehiago eman dit, nigan konfiantza dutela sentitzen dut. Aldaketak lan egiteko gogo gehiago eman dizkit eta garaipenaren arrazoi handietako bat hori da".

Afizionatuen lehendabiziko bi urteak nahiko kaxkarrak izan zirela onartu du Aramendiak. Hirugarren urtean prestatzailez

aldatu zuen eta hobekuntza hasi zela aipatu du eta igoeratan hobetzen hasi zela. "Aurten kalitate salto bat egin dudala nabaritzen dut, bereziki igotzen" aipatu du. Robotika Goi Zikloa bukatu du eta aurten buru belarri bizikletan murgildu nahi duela oso argi du.

Josu Etxeberria lehen sakandarra Lizarran

Hurrengo egunean, igandean, XLII. Cirilo Zunzarren Memoriala jokatu zen Lizarran, afizionatuen Euskaldun Torneorako baliagarria. 134 km-ko proban oso azkar ibili ziren txirrindulariak eta helmugara 25 txirrindulariz osatutako tropela iritsi zen aurretik. Lizarte taldeko Carlos Ruiz txirrindularia gailendu zen guztien artean (3:13:49). Rural Kutxa talde sakandarreko Josu Etxeberria iturmendiarrak 20.a iritsi zen, eta bezperan Laukizko Udal Saria irabazi zuen Eneko Aramendia iturmendiarrak (Goierriko TB-Laboral Kutxa) 28.a sartu zen. Asier Ormazabal ziordiarra (Lizarte) 45.a sartu zen, Ailetz Lasa ziordiarra (Goierriko TB-Laboral Kutxa) 65.a eta Alex Uncilla (Telcom) 92.a.

Aitor Alberdi zortzigarrena Monteagudon

TXIRRINDULARITZA Monteagudo Trofeoan tropel nagusian sartu ziren txirrindulari sakandar juniorrak

SAKANA

Larunbatean juniorren tropela Monteagudon bildu zen, Euskal Herriko Torneorako baliagarria den Monteagudoko Sarian parte hartzeko. 85 kilometroko proban oso azkar ibili ziren txirrindulariak, batzaz beste orduko 45 km pasatxo egin baitzituzten. Bi txirrindularik aurrea hartu zuten eta euren arteko esprintean Robert Innova taldeko Nikolas Agirre gailendu zitzaion (1:52:17) Ecotisa-Goerna taldeko Johan Fernando Porrasi.



Sakana Groupeko juniorrak.

Sakandarrak

Tropel nagusia segundo batera sartu zen eta bertan zeuden txirrindulari sakandar guztiak. Aitor Alberdi (Sakana Group-Aralar T.T) lasterketako 10 postu onenen artean sartu zen, zortzigarrena sailkatu baitzen. Bere taldekide Igor Arrieta 15.a

sailkatu zen, Iker Mintegi (Quesos Albeniz) 24.a, Jon Gil (Lizarte-Ermitagaña) 31.a, Inhar Astitz (Sakana Group) 45.a, Unai Aznar (Quesos Albeniz) 72.a, Mikel Lizasoain (Sakana Group) 79.a eta Diego Gonzalo (Quesos Albeniz) 83.a.

SAKANAKO IBILALDIA 19

XXX. URTEURRENA

2019KO APIRILAREN 27A

IRURTZUN · IRATXO ELKARTEA

IBILBIDE LUZZEA: IRTEERA: 06:00
54 Km. - 3.388 mko desnibela

IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 07:30
25,5 Km. - 1.440 mko desnibela

IBILALDI TXIKIA: IRTEERA: 09:30
14 km. - 736 mko desnibela

Izenak ematea martxoaren 18tik apirilaren 24era arte web orrian eta ibilaldiaren egunean.

www.zirkuitua.com

www.iratxoelkartea.com · iratxomendi@gmail.com

Garcia de Eulate podiuma zapatzean

DUATLOIA Larunbatean jokatu zen Altsasuko Copreci Duatloia eta Aitor Regillagak eta Paula del Pozok irabazi zuten. Altsasuarra laugarrena sailkatu zen eta Sakana Triatloi Taldea izan zen klubik onena

Eguzki dizdiratsuekin jokatu zen Sakana Triatloi Taldeak hainbat babeslerekin antolatutako IX. Altsasuko Copreci Duatloia, larunbat arratsaldean. 166 duatletek hartu zuten irteera Altsasuko herrian antolatutako zirkuituan 5 km korrikan, bizikleta hartu eta 22 km egin eta, bukatzeko, 2,5 km korrikan egiteko.

Lehendabiziko segmentuan CT Zona Media taldeko Migel Ruizek hartu zuen aurrea, baina bigarren segmentuan, bizikleta tartek erabaki zuen proba. Amandarri taldeko Aitor Regillagak Ruiz aurreratu eta 12 segundoko aldea ateratzen zion. Hala ere, bizikletan Tri Ur-Gazia taldeko Joseba del Barrio izan zen azkarrena. Baina azken segmentuan, 2,5 kilometroko korrikako tartean, Aitor Regillagak aurrea hartu eta bakar bakarrik iritsi zen helmugara (1:04:30). 29 segundora Migel Ruiz sartu zen eta 38 segundora Joseba del Barrio. Laugarren postuan lehen sakandarra sartu zen, Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate. Altsasuarra jaioterrian podium nagusira igotzear egon zen; lehendabiziko sakandarraren saria jaso zuen. Aipatzekoa da beteranoen 3 mailako saria Sakana Triatloi Taldeko Peio Vergarak jaso zuela (helmugan 108.a, 1:25:30).

Emakumezkoetan Saltoki taldeko Paula del Pozok irabazi zuen, nagusitasun handiz (1:18:42). San Juan taldeko Uxua Idiazabal bizikleta segmentuan gertu izan zuen, baina del Pozok ez zuen aparteko arazorik izan eta Idiazabal bigarrenari minutu pasa ateratzen zion (1:19:35) eta Añorga klubeko Olaia Jauregi hirugarrena izan zen (1:23:12). Sakana Triatloi Taldeko Silvia Perez bosgarrena sartu zen (1:28:03), eta beteranoen 1 mailako txapelduna izan zen.



Altsasuko Copreci Duatloia irteera.

GOIZEAN KATEGORIA TXIKIAK JOKATU ZIREN, ETA SAKANAKOAK BIKAIN ARITU ZIREN

Taldeka Sakana Triatloi Taldea izan zen probako klubik onena. Errelebotan Sergio Goñi eta Eugenio Ondarra

Altsasuko Duatloian lehenengo errelebotan parte hartu ahal izan zen. Hiru bikote aritu ziren errelebotan eta irabazleak Sergio Goñi eta Eugenio Ondarra izan ziren (1:18:45), Carmen Varela eta Fco. Javier Navarretaren aurretik (1:24:33).

Kategoria txikietan Sakana Triatloi Taldekoak bikain

Larunbat goizean kategoria txikiko duatletek Txioika ikastolaren parean bildu ziren, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak diren probak jokatzeko. 117 duatleta inguru zeuden izena emanda eta aurrebenjaminak (250m-1 km-125 m), benjaminak (500 m-2 km-250 m), kimuak (1 km-4 km-

500 m) eta haurrak (2 km-8km-1 km) aritu ziren lehian. Juniorrek eta kadeteek helduen proban parte hartu zuten, helduen distantzia bera eginez.

Sakana Triatloi Taldekoak primeran aritu ziren. Aurrebenjaminetan nesketan Aranguren taldeko Lola Remacha eta mutiletan Atalaya taldeko Gaizka Garcia gailendu ziren; benjaminetan, aldiz, emakumezkoetan Aranguren taldeko Itziar Arrosagaray izan zen azkarrena eta mutiletan Aranguren taldeko Pablo Miranda. Sakana Triatloi Taldeko Oihan Andueza hirugarrena sailkatu zen, Asier Razkin seigarrena, Eneko Razkin hamargarrena eta Ekaitz Berdud hamaikagarrena. Kimuetan, emakumezkoetan Tri-Ur Gazia taldeko Nahikari Lopez-Rosok irabazi zuen eta gizonzkoetan podium sakandarra izan genuen: Alain Razkinek irabazi zuen, Ekain Imaz bigarrena izan zen eta Mikel Arrizabalaga hirugarrena. Haurren mailan, emakumezkoetan Tri-Ur Gazia taldeko Jennifer Lopez-Roso gailendu zen eta mutiletan Antsoain taldeko Sergio Ajona.



2017ko Arbizuko duatloia irteera. ARTXIBOA

Altsasukoaren ondoren, Arbizuko duatloia bihar

DUATLOIA Larunbatean, 16:00etan, duatletek Arbizun dute zita, 22. Arbizuko Duatloian

Arbizuko 22. Duatloia jokatu da bihar, larunbatean. 16:00etan izango da duatleten irteera. Arbizuko Udalak antolatzen du proba eta Sakanako Triatloi taldearen, Sakanako Mankomunitatearen, Aralar Txirrindularitza Taldearen, Arbizu Kirol Elkartearen, Aldabide Elkartearen eta hainbat enpresa eta komertzioaren laguntza izan du udalak, herritarren babesarekin batera.

Duatloia

Antolakuntzak gehienez 115 duatleta parte hartzeko muga jarri zuen. Parte hartzaileek 5,6 kilometro korrikan egin beharko dituzte, ondoren, txirrindulak hartu eta 24 kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta, amaitzeko, txirrindula utzi eta 2,8 kilometroko distantzia egin beharko dute korrikan.

Ibilbidean aldaketak egin behar izan dituzte Arbizun egiten ari diren obregatik. Arbizun egindako ibilbideari bi buelta eman beharko diote duatletek, 5,6 kilometro osatuz. Fernando Urkia kalean hasiko da lasterketa, herriko parkean. Kale honi jarrituz San Juan ermitara bidea hartuko dute korrikan eta autobidea goitik pasata Lizarratik datorren errepedieraino jaitsi beharko dira. Errepedetik herrirantz itzuliko dira. Kale nagusian sartuko dira, baina plazara iritsi aurretik eskuineko kalea hartuko dute. Zubia gurutzatu ondoren Iruñeko Etorbidean ezkerrean egin eta Fernando Urkian egongo da helmuga bigarren bueltari ekiteko.

Bigarren itzulian, helmugara iritsi aurretik, errepedia azpitik joan behar dira parte hartzaileak trantsizio gunera iristeko. Bertan txirrindula hartuko dute eta 24 kilometro osatu beharko dituzte. Txirrindularekin Iruñeko Etorbidetik Loinatz bidera joango dira. Bide honi jarraituko diote NA-7520 errepediera irtereraino eta Beasaingo noranzkoa hartuko dute, NA-120 errepediaren bidegurutzeraino. Bertan, Etxarri Aranatz aldera joango dira. Hemen eskuineko bidea hartuko dute eta Arbizura itzuliko dira Fernando Urkia kaletik gora eta San Juan ermitara bidea hartuz. Lasterketaren punturik altuena, 750 metro, hartuko dute Lizarranzko norabidea hartuta. Ondoren, Etxarri Aranazko bidea hartuko dute NA-120 errepediaren hartuz eta Arbizura NA-2410 bidea hartuta. Iruñeko etorbidearen ezkerreko bazterrean trantsizio gunea egingo da.

Trantsizio gunean txirrindulak utziko dituzte duatletek eta hasierako zirkuitoari azken itzulia eman beharko diote, 2,6 kilometro osatuz.

16:00etan gizonzkoen proba izango da eta bost minutu beranduago emakumezkoen irteera izango da. Proba amaituta, 18:30ean, sari banaketa izango da eta Aldabide elkartearen eskutik auzatea egongo da.

Antolakuntzak Arbizura gerturatu direnei Lakuntzatik edo Etxarritik sartzeko deia egin diote, duatloia dela eta Arbizuko herri gunea itxita egongo delako.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 29

ALTSASU Gazte agenda. Sex-gunea.

17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ALTSASU Ipuinen lapikoa Izaskun Mujika ipuin kontalariarekin. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Javier Olo Martinezen alkatezarako hautagaiaren aurkezpena, Uxue Barkos bertan dela. 19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU La mujer de la montaña gaurkotasunezko filma. 22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 30

LAKUNTZA Memoria jardunaldiak. Ezkabako kartzelara bisita. 11:00etan, plazatik.

ARAKIL Sagardotegira irteera. 12:30ean, irteera herrietatik.

ETXARRI ARANATZ Duintasun militantea ez dago salgai. Herriak ez du barkatuko. Eusko gudaria, borrokak darrai. AEM-k Josu Zabala Salegi gogoratze.

12:30ean plazan.

ETXARRI ARANATZ Josu Zabala XXII urte, Egia giltzarri. Haren heriotzaren urteurrenaren harira Sorturen ekitaldia. 13:00etan, hilerrian.

ALTSASU Gazte agenda. Fornite txapelketa. 18:00etan, Intxostiapunta.

IRURTZUN Zugardi Big Band taldearen kontzertua. 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Rhythm & music for Txistu Burundar Txistulariak taldearen kontzertua. 19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 31

OLAZTI Mendi martxa: Olazti-Ziordia-Urbaşa-Olazti ibilbidea eginen dute Olaztiko mendizaleek. 07:00etan, plazatik.

ALTSASU Gazte agenda. Erronka. 18:00etan, Intxostiapunta.

LAKUNTZA Memoria kontzertua: Maite Mena eta Koldo Pla. Kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Korrika kulturala. Erraiak dokumentalaren emanaldia. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Uno mas en la familia gaurkotasunezko filma. 17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU La mujer de la montaña filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU La noche de los 12 años zineforum emanaldia. 19:40etan, lortia kultur gunean.



ASTELEHENA 1

ALTSASU Korrika kulturala. Gure oroitzapenak filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunea.

ASTEARTEA 2

ALTSASU Korrika kulturala. Gure oroitzapenak filmaren emanaldia. 09:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 1

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 12:00ean, Udaletxe parean.

ASTEARTEA 2

IRURTZUN Konpost banaketa festa. 10:00etatik 13:30era, plazan.

OSTEGUNA 4

ZIORDIA Konpost banaketa festa. 10:00etatik 13:30era, Iturri ondoan.

ALTSASU Nazioarteko gazte astea. 5 kontinente dekorazio 1. 17:30ean, Intxostiapunta.

ZORION AGURRAK



Antonio eta Arturo Zorionak bikote, aurten beste kandela bat itzali beharko du Enaitzek.



IRURTZUN Pintura tailerraren Inspirazioak margotzen harrapatu behar zaitu erakusketa. Martxoaren 31 arte. Pikuxarren.



ALTSASU. Lehengo jostailuak erakusketa. Martxoaren 31ra. Astelehenetik larunbatera 18:30etik 21:00etara eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



ARBIZU Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Apirilaren 1tik 17ra arte. Astelehenetik ostiralera 16:30etatik 20:00etara, liburutegian.



LAKUNTZA Memoria erakusketa. Martxoaren 22tik 31ra. Kultur etxean.



ALTSASU Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. 29ra arte. Astelehenetik ostiralera 15:00etatik 21:00etara, liburutegian.



ALTSASU Adela Sanchezen eta A. Arrizabalagaren erakusketa. Apirilaren 15era. Asteartetik ostiralera 16:00etatik 21:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 18:00etara, Dantzalekun.

ALTSASU Maria, reina de Escocia gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU La batalla de los sexos zineforum emanaldia.

ETXARRI ARANATZ Gudariak direlako, amnistia osoa. AEMren Kontzentrazioa. 19:30ean, plazan.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

Jose Luis Betelu Azpiroz

Atseden hartu, bidean elkartuko gara

Eskerrik asko urte luze honetan horrenbeste lagundu gaituzuen eta gure ondoan egon zareten senitarte eta lagunei, Francisi, Lakuntzako eta Etxarriko mediku eta erizainei, Gizarte Zerbitzuetako langileei, Josefina Arregi klinikako langileei eta San Juan de Diosekoei. Oso babestuta sentitu gara.

Lakuntzan, Elanekuek.

ESKELA

Miguel Luis Ezkerra

"Urtetan igande arratsaldeetan zurekin jokaturiko mus partidak eta afari goxoak ez ditugu inoiz ahaztuko"

Lizarragako Mus Kuadrila
Lizarraga-Ergoienan, 2019ko martxoaren 29an

ESKELA



Jose Luis Betelu Azpiroz

Lakuntzan hil zen, 2019ko martxoaren 27an



Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Elaneko familiye
Lakuntzan, 2019ko martxoaren 28an.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

ESKELA

Jose Luis Betelu Azpiroz

Maidar, gure lankidearen aita

Besarkada bat familiarendako



Animo mettle!

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

gela alokatuko nioke.
Fernando Urkia, 1. Arbizu.
Interesatuak deitu 663
540 272.

LAN ESKAINTZA

Arbizu: **estetizista autonomo baten bila nabil.** Buxek ileapaindegiaren barruan daukadan

IKASTAROAK

Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgunea zerbitzuaren ikastaroa: Autodefentsa feminista apirilak 6, 9:00-14:00 / 15:00-18:00). Ikastaroak 12,50 euro. Izen ematea: 948 564 823/ 948 468 343 tmoetan, Gure-etxean

edo berdintasuna@altsasu.net emaillean..

OHARRAK

Ikasle eguneko bazkaria: Sakarriko ikasle Abertzaleak ibarreko eguna ospatuko du martxoaren 30ean Altsasun.

Antolatuta den bazkarirako txartelak 10 eurotan Lakuntzako Sorginak, Etxarri Aranazko Xapateron eta Altsasuko Lezea eta Biltoki tabernetan eskura daitezke.

Etxarriko irakurle taldea: Apirilaren 11n, osteguna

nean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburategian elkartuko dira eta Alberto Ladronen "Arotzaren eskuak" liburua izanen dute hizketagai. Gonbidatuta zaude
www.iragarkilaburak.eus


IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70
 🐦 @Grupolrache
 📘 Grupolrache
 🖱 www.tanatoriosirache.es



Eneko Lazkoz Anaitasunan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

"Errazagoa da negarraraztea barrea sortzea baino"

ENEKO LAZKOZ BERTSOLARIA

2019ko Nafarroako Bertsolari txapeldunordea da Eneko Lazkoz aurreko larunbatean buruz burukoa Julio Soto txapeldunarekin jokatu ondoren

E. Carreño - E. Ruiz ETXARRI ARANATZ
Nola joan zinen Anaitasunara?

Oso lasai pasa nuen aste guztia. Ostiralean jai hartu nuen eta ostegunean eztarik mina, mukiak eta abarrekin hasi nintzen. Ez dakit nerbioak izango ziren edo zer izango zen. Baina ez ditut holako nerbioak inoiz izan. Eta egia esan nahiko beldur pasatu nuen ez nekielako kantatzerik izango nuen. Botikara joan nintzen esanez bihar ongi egon behar nintzela. Larunbatean hobeki sentitu nintzen.

Beraz, onenean ez zinen joan?

Egia esan, ez. Lehenengo saioan sumatu nuen gehiago. Ondoren, hobe nengoen. Oso nekaturik bukatu nuen. Alde horretatik bai izan zitekeen nerbioak.

Nerbioak edo presioa?

Presiorik ez dut sentitu. Nik uste bertsotan aritzen garenak badakigula Nafarroako hobere-na Julio dela. Egia da aurtun puntu gehiagorekin iritsi nintzela, baina erreferentzia bezala balio dezake bakarrik. Ilusioa neukan irabazteko aukera nue-

lako. Baina banekien oso zaila izango zela.

17:00ak iritsi ziren. Zer sentitu zenuen momentu horretan?

Egia da aurtun oso giro polita geneukala gure artean. Bi gazteak haize berria sartu dute eta nik harremana dezente daukat haiekin. Denon artean oso gustura egon ginen. Gero bakoitzak bere buruan izaten ditu bere gerrak. Baina ongi, lasai egon nintzen.

6. aulkia egokitu zitzaizun. Berdin zaizu?

Inauterietako argazki politenak

Aritz Duranen bi argazki izan dira argazki lehiaketan bozkatuenak, baina pertsona batek ezin dituzenez bi sariak irabazi, Fernando Morenoren lana izan da bigarren.



Sutondoko beroa (87 bozka). ARITZ DURAN



Momotxorroak eta adrenalina (68 bozka). FERNANDO MORENO

Lagun batek dio daukazun adina beti dela hoberena. Aulkiarekin berdin geratzen dela uste dut. Nahiago dut binakakoetan lehenengo ez izatea.

Buruz burukoan zeundela atzean, pentsatu zenuen txapela gertu zenuela edo argi zeneukan Juliok ongi egin zuela eta aukerarik ez zenuela?

Buruz burukoaren hasieran oraindik Julio aurretik ikusten nuen, baina bueno. Aurretik lana zegoen egiteko eta pentsatu nuen lana ongi egiten banuen, eta biak ez badugu egiten... gertatuko zela. Ez dakit.

Finaletan zergatik jotzen da hainbeste seriotik eta umoretik hain gutxi?

Jaso dugun hezkuntza da. Eta egia da errazago dela jendeari negarra egin araztea, barrea sortzea baino. Txapelketan tentsio guzti horrekin eta zaila egiten da. Bertso afari batean ton-takeriak esatea erraza da.

Zuen arteko giro ona nabari nabaria da.

Guretzat lehiaketa bat da eta ez da. Azkenean batek bakarrik ezin du ezer egin. Bertsolaritza taldeko lan bat da eta nik uste denoi horrela erakutsi digutela.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Gorka Urbizu Berri Txarrak taldean hasieratik dagoen kide bakarra da. Hortaz, ondarea eta ibilbide osoa defendatzea tokatzen zaiola esan du. Ahotsa, gitarra eta arima jartzen du, izan ere, taldearen kanten sortzailea da. 25 urte bete ditu aurretan Berri Txarrak-ek, eta azaroan "geldialdia" egingen dute eta ikusi arte esaten ari dira. Biraren barruan kontzertua eskaini dute Altsasuko Gaztetxean.

Zergatik Altsasuko Gaztetxea?

Alde batetik, egutegi aldetik ez da erraza izan. Gaztetxe asko daude Euskal Herrian geldialdiaren aurretiko azkeneko bira honetan guretzako inportanteak izan diren lekuetan egotea nahi genuen. Eta toki asko dago. 25 urtetan gaztetxe askotan izan gara. Gainera, sinbolikoki Altsasuk bazeukan pisua eta Nafarroako gaztetxe bat izanda eta... bazeukan erakargarri asko.

Jo zenuten lehenengo lekuetako bat izan omen zen.

Bai. Maketarekin edo maketa atera baino lehen izan zen. Istoria hau ez dakit inoiz kontatu dudana, baina garai horretan adinagatik ez geneukan gidabaimenik. Rubio, bajista, Bete-lukoa zen eta Beteluko jendea etorriko zela esan zigun eta haiekin itzuliko ginela. Bere aitak ekarri gintuen traste guztiekin. Baina gero ez zen bertatik inor etorri eta azkenean autostop egin behar izan genuen. Ez zen inor geratu eta azkenean gaztetxera bueltatu behar izan ginen taxi baterako dirua eskatzera, oso lotsatuta. Nahiko anekdota berezia dugu, bai.

Zer aldatu da lehenengo aldiz etorri zinetenetik?

Gaur jendea etorriko dela, hori badakigu. Sarrera guztiak agortu dira. Hori aldatu da, eta, bestetik, nahiko bira berezia da honen ondoren geldialdi bat datorrelako. Kontzertuak hungigarriak izaten ari dira. Energia trukea beti dago, baina bira honetan gehiago da. Goitik sentitzen dugu puri-puritan gaude. Jende askorentzako azkeneko aldia izango da eta hori igaritzen dugu.

Beude biraren sarrera guztiak ordu eta erdian amaitu ziren. Navarra Arenakoak lortzeko izugarria izan zen. Nola sentitzen zarete horrelakoak ikusten dituzuenen?

Sentimenduak kontrajarriak dira. Alde batetik pozik, noski,



Gorka Urbizurekin Altsasuko gaztetxean. MIREN AGIRRE OLIVENZA

"Topiko bat da, baina nahiago dut areto txikietan jotzea"

GORKA URBIZU BERRI TXARRAK

Berri Txarrak taldeak kontzertua egin zuen Altsasuko Gaztetxean asteazkenean, martxoaren 27an, Beude biraren barruan. Sarrerak laster amaitu ziren

poztekoa delako. Horrek esan nahi du zure entzulegoa atzean dagoela. Baina, bestetik, pixka bat gainezka egin du guztiak eta horrekin ez gara eroso egon. Jendea kanpoan geratu da eta sarrerak lortzeko komeriak izan dira. Ez da erraza asma-

tzen. Arenan arazo teknikoak izan ziren jende gehiegi zegoelako. Eta Beude bira honetarako erabaki genuen ez genituela online jarriko eta tokian tokiko sarrera jarriko genituela Altsasuko kontzertura Altsasuko jendea etortzeko. Bai-

na orduan ere kexak egon ziren...

Hasi zinetenean noizbait horrelakorik biziko zenuenik espero zenuen?

Ez. Ez dakit. Azkeneko urtetan jende asko etorri da Berri Txarrak-eko kontzertuetara. Azke-

nengo lau edo bost urtetan Euskal Herrian egin dugun kontzertu bakoitzean sarrerak agortu egin dira. Baina geldialdia iragarri genuenetik biderkatu egin da dena. Puztu egin da eta histeria moduko bat sortu da. Gauzak datozen bezala onartu behar dira eta pozteko gauza bat da.

Navarra Arena beteta, areto txikiagoetan kontzertuak ematea erabaki zenuten. Zergatik?

Hasteko, gu hortik gatoz, eta uste dut inportantea dela, nahiz eta urteak pasa, ez ahaztea nondik zatozen. Eta betidanik jo izan dugu horrelako tokitan, eta gustatzen zaigu kontraste hori. Gai gara Navarra Arena edo BEC batean jotzeko, baina gero atzerrian jotzen dugunean kontzertu nahiko undergrow batean ibiltzen gara eta jendea etortzen da, baina beste batzuetan oso jende gutxi dator. Horrek beharzen zaitu alerta egoten. Eta on egiten digu talde hau beti izan delako nahiko kamaleonikoa aspektu askotan. Bira honetan Primavera Sound-en joko dugu eta gero Resurrection jaialdian musikalki zerikusirik ez duten bi festibaletan. Eta hori erakarria da. Oso positiboa.

Eta zer nahiago duzue?

Topiko bat da, baina nik nahiago dut horrelako aretotan jotzea. 10.000 lagun zure abestiak abesten ikustea oso handia da. Batzuetan kosta egiten da hori kontrolatzea. Publikoa seguritateagatik bi metrora dago, eszenatokia oso altua da... Eta aretoetan jarratzailea aurrez aurre daukazu. Beude bira honetan aretoak beteak daude eta giro berezia sortzen da. Gainera, ia bi urte generamatzan horrelako tokitan jo gabe.

Orduan Beude bira ongi joan da, ez?

Bai. Hazparnekoa falta zaigu eta oso berezia izan da. Ondarru, Bilbo... Lekunberrin ere egin genuen eta beldurra ematen zidan. Aspaldi frontoi batean jo gabe eta etxean. Jende ezagun gehiegi eta familiakoak ere egoten dira. Baina oso ondo pasa genuen.

Estatuan ospe handia lortu duzue, baina atzerrian ere. Nola azaltzen duzue?

Lana da. *Jaiio. Musika.* Hil diskoarekin lanak utzi genituen. Burbuila honetatik ateratzeko eta atzerriera ateratzen saiatzeko lanak utzi behar genituen eta


hori izan zen gure apustua. Urteen poderioz hemendik hona egon gara. Oso nekagarria da askotan. Baina hemen geratuko bagina seguruenik Berri Txarrak ez zen existituko. Gustatzen zaigu kontrastea. Baina trukoa ez dakit zein den. Inork ez dakit. Lana bai, baina faktore asko daude. Katuek zerikusirik izango dute, zuzenekoek ere. Topiko bat da baina musika unibertsa da eta rock zuzeneko bat ezin da ezerekin ordezkatu. Orduan horretan hizkuntzak ez du zerikusirik.

Baina Berri Txarrak-en musikak zerbait badu.

Jendeak esaten duenez bai. Iristen zaie eta hori da politena. Jendeak esatea ez duela letra ulertzen baina iristen zaiela. Eta orduan pentsatzen duzu letrak ulertuko bazituen askoz gehiago iritsiko zitzaiola. Azkenean letrak oso inportanteak dira. Baina ez dakienak beste modu batera bizi ditu. Batzuk irakurtzen dituzte letrak eta beste batzuek ez diete garrantzia handirik ematen. Publikoaren aniztasun hori ere garrantzitsua da. Badaude aurtentzen ezagutu gaituztenak baita hasieratik jarraitzen gaituztenak ere. *Haria* diskoan esaten genuen bezala, hari ikusezin hori hor dago, dena lotzen duena. Baina ez dakit zehazki zer den. Katuak egiteko modu bat eta gauzak egiteko modu bat.

Aldatu da Berri Txarrak-en estiloa?

Aldatu edo eraldatu... Nik esaten dut zabaldu egin dela. Entzule moduan ere zabaldu den bezala. Artistak jakinmin hori izan behar du eta galderak egin behar ditu. Gauza berriak entzuten saiatu behar da eta interesa gauza berriak sortzeko. Hori ez dagoenean hobeto uztea. Eta uste dut alde horretatik guri musika desberdina gustatzen zaigu eta pixkanaka hori zabalitzen joan gara. Hasi ginenean metala gustatzen zitzaigun, doinu gogorretatik hasi ginen. Doinu gogorrek maite ditut orain ere, baina beste soinu batzuk ere bai. Eta, gainera, uste dut ausardia izan dugula. Askotan metalaren mundua oso zurruna da eta gu hibrido bat izan gara. Berri Txarrak-en jarratzaileek onartu dute, beste erremediorik ez dutelako izan, *Oihu* bezalako kantu bat egin dezakegula eta aldi berean *Oreka*. Zerikusirik ez daukaten abestiak, baina guretzako bai dute. Hasieran gau-



za berriak onartzea denoi kostatzen zaigu, baina entzulea hezi egin behar da ere. Eta zuzenekoetak jarrerak ere asko egiten du. Nahiz eta pop musika egin barruan daukaguna rocka da. Eta hori beti azaltzen da. Argi dut rock talde bat garela, baina ikuspegi zabalarekin.

Zaila izan da kontzertuetarako abestiak aukeratzea?

Buruhauste handia izan da. Gainera saiatzen gara egunero aldatzen. Azkenean gauza batzuk errepikatzen dira ezinbestean. Kontzertuaren aurretik elkartuko gara eta sentsazioen arabera zerrenda egingo dugu. Bira honetarako 80 bat abesti presatu ditugu.

Zein izan da "ikusiteko" esateko inflexio puntua?

Infrasoinu hori hor zegoen azkeneko urtetan. Bira bat bukatutakoan nekata iristen nintzen eta batez ere hurrengo urratsa pentsatzen kostatzen zait. Geroz eta zailagoa egiten zait ez dudalako nire burua errepikatu nahi, eta orduan pentsatu behar kontzertu bat, konposatu eta grabatu... Bi eta lau bitarteko prozesu bat da. Eta biran nengoenean eta gero zer galdetzen nuen, eta galdera hori geroz eta handiagoa zen. Aurreko urtean milagarren kontzertua egin genuen Zelanda Berrian eta seinale antzeko bat izan zen. Tontakeri bat da, zenbaki bat da, baina milagarren kontzertua eman eta, gainera, munduaren beste puntan. Mugarri bat izan zen. Bestetik, 25 urte betetzen ditu taldeak eta geldialdi bat egiteko momentu on batean egin behar duzula pentsatu izan dut beti. Geldialdia da azkenean. Alferrik da hasia itzuliko gara ez gara itzuliko.



Elena Aldasoro kanpaina solidarioaren sortzailea.

"Horrelako esperientziek asko aberasten zaituzte"

Elena Aldasorok kanpaina solidario bat jarri du martxan. Berrerabili daitekeen materiala jasotzen ari da Saharara eramateko. Belexe irratian kanpainaren eta Oporrak bakean programaren berri eman du altsasuarrak

E. Carreño eta E. Ruiz ALTSASU

1 Zertan datza kanpaina?

Kanpaina solidario bat jarri dugu martxan. Berrirori erabilteko moduan daudena bigarren eskuko eskolako materiala biltzea da eta horrela bigarren aukeren balioa sustatu. Hortaz, helburua ere bakoitzak bere etxean konzientzia pixka bat izatea eta

ondo dauden koadernoak baina folioak faltan dituztenei adibidez bigarren erabilera bat ematea...

2 Zertarako biltzen ari zarete?

Apirilaren bukaeran Saharara egingo dugun bidaiaren eramateko asmoa dugu. Zorionez bolumena oso handia izaten ari da eta ziurrenik ezin izango dugu gure maletetan dena eraman.

Baina sartzan ez dena Anas Sahararako Lagunen Nafarroako elkar-tearen bidez bideratutako dugu.

3 Berrerabilitako materiala biltzen ari zarete, baina bakarrik eskolarako materiala.

Bai. Saharan gauza asko behar dituzte, eta kanpotik laguntza jasotzen dute, baina nik liburudenda bat izanda, pentsatu nuen

eskola materiala egokia izan zitekeela. Gainera, han gauza asko bisitatuko ditugu eta haien artean eskola bat dago.

4 Bi helburu ditu, beraz. Berrerabilpena sustatzea eta Sahararekin solidarioa izatea.

Kontsumoa bultzatu gabe egin nahi nuen. Beraz, ez nuen nahi jendeak gauza berriak erostea eta ematea. Azken finean, etxean horrelako material asko dugu armairuetan sartuta: orain dela hainbat urte egindako trebakuntza batean oparitutako koaderno eta abar.

5 Noiz arte jasoko duzue materiala?

Epea apirilaren 12 eta 17 bitartean jarri dugu. Apirilaren bukaeran goaz eta dagoeneko materiala sailkatzen hasi gara. Esan bezala bolumen handia etortzen ari da eta ongi antolatu behar dugu.

6 Arkatz liburudendan ez ezik, beste nonbait jasotzen duzue?

Haritza tabernarekin elkarlanean aritzen gara, aurkezpenak egiten ditugu bertan, eta oraingoan ere bilketa puntu bat jarri nahi izan dute. Intxostiapuntan ere jarri dute. Eta gero hona ekarriko dituzte. Nahi duenak emateko aukera du.

7 Zer da Anas?

Sahararako Lagunen Nafarroako elkarte da Anas. Nire elkar-tearekiko lotura duela bi urte hasi zen Oporrak bakean programaren bidez haur bat etortzen delako uda pasa. Kanpamentuetako eta basamortuko baldintza gogorretatik urruntzeko eta handik pixka bat ateratzeko egiten dute programa hau. Eta horren

bitartez hasi ginen haurra ekartzeko eta gero harremana handiago egin zen.

8 Zergatik Oporrak bakean programan parte hartu?

Udan Saharako haur bat ekartzeko aukera da. Modu pertsonalean esperientzia oso onuragarria dela esango dut. Bai haiendako baita guretako ere. Benetan, bizitzan bizi beharreko esperientzia bat da. Hortaz, nahi duenak Anas elkartearekin kontaktuan jar daiteke eta haiek bideratuko dute dena. Azkenean familiarik ez duten haurrak ere ateratzen dira kanpamentuetatik.

9 Beraz, haurrak kanpamentuetatik ateratzen dituzte baina egoera ezberdinetan.

Bai, atera behar dira. Baina familia batekin joan beharrean tutoretzapeko pisuetara eramaten dituzte nerabeekin eta abar.

10 Apirila bukaeran joaten zarete. Ekartzen duzuen haurrekin egoteko aukera izango duzue?

Bere etxean geldituko gara. Bidai hauek familiendako dira. Anasek aste santuko oporretan eta abenduko zubian antolatzen ditu bidai hauek. Guri ongi etorri zitzaigun aste santuan eta familiari deitu genion. Baietz esan ziguten. Beraz, haiekin biziko gara, gure haurrekin.

11 Eta aurretik familia ezagutzen zenuten?

Argazki bidez eta audio bidez. Ez dute Internet sare oso ona. Audio bat gaur bidali eta hiru egunetara erantzuten digute. Baina pertsonalki ez dugu elkar ezagutzen. Eta niretako bidai hau oso hunkigarria izango da.

BAZKIDE SARITUAK

- Embutidos Arbizu SL (Arbizu)
- Eukene del Olmo Aldasoro (Altsasu)
- Esperanza Armentia Lopez de Sosoaga (Lakuntza)
- Irene Irigoien Arregui (Urdiain)

MARTXOKO SARIAK:

1. SARIA:
 EUREKA ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BANA



eureka!
zientzia museoa
kutxa FUNDAZIOA



Ekain berri



erein
argitaletxea



Kai?



CAMPING
ARTAZA



lacturale



gaztezulo